

Orixe

**Euskal literaturaren  
historia laburra**

Utriusque Vasconiae

© Paulo Iztueta  
© Utriusque Vasconiaë  
Lehen argitaraldia: Donostia, 2002ko azaroa  
ISBN: 84-932654-2-X  
Lege-gordailua:  
Azala: P.I.A  
Diseinua eta maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE  
Ategorrieta Hiribidea, 3-3. 20013 Donostia.  
Tel.: 943-270433  
Banatzailea: BITARTE – 31195 Berriozar (Nafarroa).  
Tel.: 948-302239

Orixe

Euskal literaturaren  
historia laburra



Liburu hau Ur Apalategi Idirinek zuzenduriko  
KRITIKA LITERARIOA  
sailean argitaratzen da

## AURKIBIDEA

IRAKURTZEKO GOMENDIOA. <i>Paulo Iztueta</i> . . . .	9
EUSKAL LITERATURA'REN ATZE EDO EDESTI LABURRA . . . . .	17
I. ATAL-GITEA . . . . .	19
Iru atal . . . . .	19
Begiratu bat . . . . .	21
II. EUSKALDUNAK ETA EUSKERA . . . . .	23
Lenbiziko euskaldunak . . . . .	23
III. POESI HERRITARRA . . . . .	25
Pastoralak . . . . .	30
Eske-leloak . . . . .	31
Toberak . . . . .	33
Kantutegiak . . . . .	34
Bertsolariek (sic) . . . . .	34
IV. AXULAR AURREA . . . . .	37
Dechepare (1545) . . . . .	37
Leizarraga . . . . .	39
Bonaparte . . . . .	40
V. AXULAR (1643) . . . . .	41

VI. AXULARTARRAK .....	45
Joannes Etxeberri .....	45
Larregi .....	46
Haraneder .....	47
Arbelbide .....	47
Yoannategi .....	48
Intxauspe .....	48
VII. ORAINGO IDAZLE LAPHURTARRAK .....	51
<i>Eskualduna ta Gure Herria</i> .....	51
VIII. LAPHURDIKO POETA LANDUAK EDO	
ERDI-LANDUAK .....	53
Oihenart (1657) .....	53
Elizanburu .....	54
Salaberri .....	56
Etxaon .....	57
Artxu, Goietxe, Otxobi .....	58
Adema Zaldubi .....	58
IX. LARRAMENDI TA BERETARRAK .....	61
1. Eliz-idazleak .....	61
Larramendi .....	61
Mendiburu .....	62
Kardaberaz .....	63
Añibarro .....	64
Agirre ta Bartolome .....	64
Lardizabal .....	65
Arrue .....	65
Beste eliz-idazle batzuk .....	66
2. Mogel ta Iztueta .....	66
Mogel .....	66
Iztueta .....	66

3. Lore-jokuak .....	67
<i>Euskal-Erria</i> .....	67
4. Bidasoaz emendiko poetak .....	68
Iztueta .....	68
Iparragirre .....	68
Bilintx .....	69
Arzak .....	69
Arrese ta Beitia .....	69
Karmelo Etxegarai .....	70
5. Alegi edo ipuinak	
Iturriaga .....	71
Azkue (E.M.) .....	71
Aita Zabala .....	71
X. GURE MENDEA: ARANA TA INGURUKOAK .....	73
Arana'z lekukoak .....	74
Agirre, Txomin .....	74
Etxeita .....	74
Arana-Goiri .....	75
Eleizalde .....	75
Arana baino Aranagoak .....	75
Arriandiaga .....	75
Arana-kukuak .....	76
Ileroko, asteroko, egunari, t.a. ....	76
XI. EUSKALTZAINDIA .....	77
Euskaltzaindiko idazle batzuk .....	77
XII. IRAKASPENA .....	79
ERANSKIN GISA. ARTIKULU SOLTEAK EUSKAL KLASIKOEN GAINEAN .....	83
1. Los clásicos vascos .....	85

2. Pedro de Axular . . . . .	87
3. Mendiburu . . . . .	93
4. Zabala . . . . .	97
5. Juan Antonio Moguel . . . . .	101
6. Guipúzcoa . . . . .	103
7. Larramendi . . . . .	107
8. Iztueta . . . . .	111
9. El Padre Yoanategui (Yoannateguy) . . . . .	115
HONDAR HITZAK. <i>Paulo Iztueta</i> . . . . .	119



## Irakurtzeko gomendioa

Orixeren liburutxo hau aspaldikoa da, *Euskal Esnalea* aldizkariak bere XVIII. zenbakian (1927) argitaratutakoa. Orain, berrargitaratzean, gerta liteke batzuek –azken belaunaldikoez, bereziki– zerbait berriekin topogitea, horrelako lanik bazenik ere ez zekitelako, edo bazela bazekitenek, aintzakotzat hartu ez eta, aparteko garrantzirik eman izan ez ziotelako.

Noski, euskal literaturaren historiaz jardutean, hasierako erreferentzia ezagunenak eta, seguru asko, aipatuenak, izan, Luis Mitxelena eta Luis Villasanterenak ditugu. Gaztelaniaz idatziak daude eta biek izenburu bera daramate: *Historia de la literatura vasca*. Harena, liburu gisa, 1960an argitaratu zen, baina bi urte lehenago, 1958an, emanik zuen izen bereko laburpen gisako beste lan bat ere, Guillermo Díaz Plajaren zuzendaritzapean, Bartzelonan argitaratutako *Historia general de las literaturas hispánicas* bildumaren barruan, IV. tomoan. Bestearena hurrengo urtean agertuko da, 1961ean.

Baziren aurretik egindako beste lan batzuk ere gai honen inguruan, baina ez era sistematiko batez burutuak, ezta ere osoak. Karmelo Etxegaraik Pablo Gorosabel tolosarraren *Noticia de las cosas memorables de Gui-*

*púzcoa* bildumari egiten dion Eranskinean (1901), adibidez, Gipuzkoako euskal idazleen berri bakarrik dakar. Lehenago, 1895ean argitaratutako P. Henaoren *Antigüedades de Cantabria* lanean, VI. tomoko *Complementos y Apéndices* atalean, “Reseña histórica de la literatura cántabra o vascongada” izenekoak dator, aita Jose Ignazio Arana jesuitak idatzia. Iparraldeari dagokionez, iturri oinarritzakoa Pierre Lafitteren *Le Basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule* izan da, Baionan 1941ean argitaratua, Hegoaldeko beste bien antzera, hau ere erdaraz. Eta hor tartean, erdi-galduta bezala, Orixeren *Euskal literatura'ren atze edo edesti laburra* (1927) daukagu, bere laburrean, euskal literatura bere osotasunean hartzen duena, ahozkoa bezala idatzizkoa, nola Iparraldekoa hala Hegoaldekoa. Zentzu hone-tan, bakoitzari berea zor baitzaio, osotasunaren ikuspegia berekin du, baina ez –lanari ezarri zizkion mugengatik, batez ere–, lehenengo biek duten luzera. Ez da ahaztu be-har sariketa baten deiarri erantzunez idatzi zuela Orixek. Besteen argitalpenak, ordea, beste garai batean eta beste euskarri bibliografiko batez egindakoak dira. Hemen ere bakoitzari berea eman behar zaio.

Baina jakin, bazekiten Orixeren lana kontuan har-tzekoa zela. Aita Villasantek haren ekarpenari “una histo-ria compendiosa y sintética” eta “excelente trabajo” deri-tzo bere lanaren sarreran.

Luis Mitxelena ez dakar ez haren eta ez inoren aipamenik. Baina erreteriarrek hurbil-hurbiletik segi-tzen ditu Orixeko basurdearen pausoak, atzerrian bezala etxean. Orixe Amerikatik itzuli orduko, Euskaltzaindia-ren izenean, 1954ko abenduaren 20an gutun bat igortzen dio Tolosara, hil horren 30ean egitekoa den bilerara dei-tuz. Hurrengo urteko urtarrilaren 10ean, beste gutun ba-tekin dator kio, oraingoan *Egan*-en argitaratzekoa den gal-dera-sorta bati erantzun diezaion eskatuz. Handik hamalau

hilabetera, 1956ko apirilaren 26an, Urkijo mintegiaren izenean idatziz, euskal literaturaren historia egiteko proposamena egiten dio, bi hizkuntzatan –gaztelaniaz eta euskaraz– egina izan beharko lukeena. Duen garrantziagatik, bere osotasunean transkribatua doakizu gutuna:

“Mintegi onetako buruzagien izenean idazten dizut. Asmo bat darabilgu aspaldian: lotsagarria dela euskal literaturaren kondaira liburutxo batean ez izatea, ez euskaldunontzat bakarrik, baita ere erdaldunei bagerala behintzat adierazteko, eta olakoren bat behar gendukeela aalik eta lasterren.

Asmo ori onela tajutu dugu, gutxi gora-beera: liburuak bi izkuntzetan agertu bear luke, euskaldunontzat eta batez ere euskaltzaleontzat euskeraz, eta gazteleraz gaine-rako guztientzat. Bi izkuntzak parez-pare joan ditezke.

Eztaukagu aazturik –ba ote dago esan bearrik?– zerorrek ondu zenduena. Oso gogoko dugu, eta orrexegatik jo dugu zugana. Atsegin duguna artan auxe da, besteak beste: idazle zaarrei, euskaldun gutxik bezala ezagutzen dituzulako, zor zaiena ematen diezula, eta etzerala, maizegi gertatzen dan gisa gure artean, arto bero-usai-zalea.

Gure naia 150 bat orrialdeko liburua –izkuntza batean– litzake: bitara, beraz, 300 ingurukoa. Ortara eltze-ko, oker ezipagaude, leengo lana apurren bat ornitu bear-ko litzake, zenbait idazle, besterik ezipada ere aipatuaz. Horrela ditugun utsuneak elirake agian diren bezain lotsagarri agertuko, eta ori gezurrik esan gabe. Gero, jakina, berriagoak erantsi bearko litzaizkioke, zerorri artean zerala. Etzaizu noski atsegin izango zerorren buruaz mintzatzea, baiña naikoa zenduke egin dituzun lanak aipatzea, eta izan dituzun asmoak agertzea.

Lan ori zere gain artu nai bazendu –eta eztatigu nork ar lezakean, zuk izan ezik–, esaiguzu mesedez zenbat derizkiozun lan-saritzat, eta zer epe bear zendukean ontzeko gutxi gora-beera. Naikoa zenduke izkuntza batean,

nai duzunean, egitea. Orduan, jakiña, bestera egindako itzulpena elitzake argitaratuko zerorrek ontzat eman gabe.

Baiezkoan, eskabide bat egingo genizuke. Gai oriek zoritxarrez jendea –batetik edo bestetik– min dezaketen alakoak diren ezkerro, lana zearo ondu baiño leen, gerok ikusi eta iritzia emango genizuke, zer edo zer geitu ala aldatu bear litzakeela irudituko balitzaigu. Eluke iñork ezer aginduko, bego ori garbi: elkarrekin izketatzeko gaia izango litzake, nork bere arrazoibideak azaltzen dituelarik.

Badakigu eginkizun onek gogokoago dituzunetarik baztertuko zindukeala. Ez genduke nai, alaz ere, ongi azertu gabe ezezkoa ematerik. Ain gaude guztiok orrelako liburu baten bearrean! Gure asmoak eta usteak garbi-garbiro azaldu dizkizugu. Batean edo bestean aldatu bear lirakeala uste bazendu, emauguzu zure eritzia batere kupidarik gabe.

Elkarrengandik urruti xamar –lurrez ezpada ere– bizi geran arren, gogoan zauzkagu beti, hainbeste euskaldunek bezala. Eta esanera gauzkazu beti”.

Gutun honetan gauza asko datoz ezin zehatzago azalduta: hasteko, haren *Euskal literatura*ren atze edo edesti laburra, 29 urte pasatu diren arren, oso gogoan daukala eta hor, guztien gainetik, euskal idazle klasikoez erakusten duen ezagutza eta aitortzen dien zorra miresten dituela. Hori esan eta gero, lehen egindakoa oinarritzat hartu eta osatuz, liburuaren plangintza zehatza egiten zaio, horrelako lan bat burutzeko bera litzatekeela egokiena esanez. Luis Mitxelena gutun horretantxe agertzen du garbienik Orixeren saio horretaz duen iritzia, ezin positiboagoa dena. Noski, Luis Mitxelena Urkijo mintegia-zen izenean idazten du, baina, inolako zalantzarik gabe, bere iritzi pertsonalak dira bertan azaltzen dituenak.

Proposamena ongi azertu gabe, ezezko erantzunik ez dezala eman eskatzen dion arren, handik astebetara,

maiatzaren 5eko gutunean, hain zuzen, egiteko hori beste baten esku uzten duela diotso:

“Lenik, eskerrik asko nitaz oroitu zeratelako. Gero, “Urkixo” mintegiak merezi du ori ta gehiago ere nik egin dezaiodan; baiñan ez dut berriro eltze ortan burrunztailia sartu nai. Len ere zentzaturik nago gure iendearekin.

Askota asko daude nere iritziaren begira, batez ere poeta bezala, ta nik iritzirik eman nai ez. Naiago dut pakea.

Lan ori Aita Onaindia'k egin dezake laister eta ederki. Nor-nai dala lan ori bere gain artzen duna, iakin dezala, nere lanez baliatzeko baimena ematen diodala, naidun eran erabilteko, eta nik ez dudala ezeren eskubiderik aipatuko.

Ni osasunez beñere baiño okerrago. Aste ontan izan ditut bi eroriko aundi, biak zauriekin. Oraindik ere ez dut etsi, baiñan etsitzeko ere ba-da oinbeste kolperekin”.

Ezezkoaren arrazoia ez da, noski, osasun txarrarena, bere iritzia agertzeagatik etorri izan zaizkion erasoek eragindako eskarmentuarena baizik. Horregatik ez du burrunztalirik sartu nahi irakiten pil-pilean dagoen euskaltzale eta euskal idazleen eltze horretan. Eta enbarazua ahalik eta lasterren kentzeko, aita Onaindiaren izena ematen du, baina Luis Mitxelenak, 1956ko maiatzaren 18ko gutunean jakinarazten dioenez, haren izena ez da interesatzen: “Aita Onaindia'ren izena gogoratu zitzaigun leen ere. Badakigu orrelako lan baterako bear diren doaiez ornitua dagoela, baiña zertxo batek atzeratzen gaitu. Bigunegia izango litzakeala alegia, eta naiago genduke irizle zorrotza xamurra baiño”. Luis Mitxelenak ere nolabaiteko arrazoiak bilatzen ditu Orixeren proposamenari ezezkoarekin erantzuteko.

Kontua da –eta orain berriro hasierara gatoz–, Orixeren ezezkoa jaso ondoren, enkargu hori beste inori eman

nahi ez eta, azkenean Errenteriako hizkuntzalariak berak hartuko duela bere gain egiteko hori eta orduko erabaki horren emaitza izango dela handik lau urtera argitaratuko den bere *Historia de la literatura vasca*. Geroztik, bakoitzak bere bidea eginez, euskarazkoak etorriko dira: lehenik 1971n Ibon Sarasolaren *Euskal literaturaren historia* eta hurrengo urtean aita Santiago Onaindiaren *Euskal literatura*, bost tomotan argitaratuko dena. Luis Mitxelena bi hizkuntzatan emana izan zedin nahi zuen. Hara hor, bada, hizkuntza bakoitzean bina lan burutuak, geroztik etorritakoak aparte utzita, noski.

Orixek ezezkoarekin erantzun baitzuen, haren saio labur baino trinko honek isilpean egingo ditu urte luzeak, *Euskal-Esnalea*-ko sei emanalditan sakabanatuta, 1991n haren *Idazlan guztiak* bildumako III. tomoan osorik jasoa izango den arte. Baina hor ere lehen bezain itzalean eta hilik segitzen baitu, hara zergatik bururatu zaigun argitalpen autonomo batean argitaratzea. Merezki duela. Eta, batez ere, euskal literaturaren gainean egindako lehen historia delako. Eta, gainera, euskaraz egina.

Zalantzak izan ditut Orixeren originala ortografiaren aldetik eguneratua eman, ala bere hartan utzi. Tes-tuak ulertzeko batere zailtasunik ez baitu, bere hartan uztea erabaki dut, gehienbat arrazoi linguistiko hutsa-rengatik, Orixek garai hartan nola idazten zuen jakin dezagun.

Honaino Orixeren saio hau argitaratzera zerk bul-tzatu gaituen azaltzen aritu natzaizu. Bidean Mitxelena eta Orixeren arteko gutunetan euskal literaturaren bar-ne-historiarako informazio interesgarririk aurkitu ahal izan dugu, Donostiako Koldo Mitxelena liburutegian ar-toski gordetzen dena.

Saio saritu hau 1927an argitaratu baino lehen, or-dea, 1924ko maiatzean hasi eta 1925eko abuztuaren 3a arte, hainbat artikulu eman zituen argitara *Euzkadi*-n

–hauek gaztelaniaz, Primo de Rivera diktadorearen garaian–, euskal klasiko batzuen gainean, zein baino zein jakingarriagoak, garbizalekeriak gora egiten zuen garai hartan. Horietatik adierazgarrienak “Artikulu solteak euskal klasikoen gainean” izeneko Eranskinen atalean aurkituko dituzu. Honela, bi testu-multzoak –euskarazkoak eta gaztelaniazkoak– bateratuz, elkarren osagarri eta, bidenabar, argigarri izango zaizkizu. Bukaeran, “Hondar Hitzak” izeneko atalean ematen ditut *Euskal literatura'ren atze edo edesti laburra* saioari zein artikulu-bilduma hautatuari dagozkien xehetasunak, Orixeren gai honi buruzko ekarpena bere osotasunean eta testuinguruan ulertzeko lagungarri izan dakizun. Nire aipuen iturriak ere Eranskinetan daukazu.

Paulo Iztueta Armendariz

EUSKAL LITERATURA'REN ATZE  
EDO EDESTI LABURRA



# I. Atal-gitea

## Iru atal

Euskeraren literatura, dentxo, iru atal eginen dizut, iru idazle-mordotara biribiltzen dudalarik. Eskualdez edo regionez, baita euskalkiz ataltzeari ere utzi eginen diot, ezpaitirudit ain egoki. Mendez-mende, gizaldiz-gizaldi zaitzeak ere badu neke, batez ere labur izateari ba gatzizkio. Gizonez-gizon morkatuko dizut, jaunetik edo buruenik izan direnetara xumeagoaz eratzikiz. Onetan ere baduzu irrixta-bidea edo limur-bidea; gure mendeko, gure bizikide direnetan inor minarazi ote nezake? Enuke orretara jo nai; baino nai ta nai ez mintza-bearra izaki, ixil egoitea litzake errazetik, alegia, baino gure literaturak izan duen arorik bizkorrenaz ixiltzea, utsarte aundixkoa zinuke, naski. Irakurle, nere iritziari etzaitziola egia-ri bezain atxiki. Nik esana, nere iritzia, nere egia da, ez egia bera. Beraz zure iritzia nerea baino egiago liteke.

Beste zoztorrik ere azaldu zait bide onetan: nor-ta dire gure literaturaren iru guraso oriek? Gure mendekoe-tan zein aukeratuko dizut buruzagi?

Iru guraso orietan badugu bat, lenbizikoa, idazlerik bikainetsuna: Axular. Geroz, Axular'en biribilkia edo

cicloa, bera zilbor edo buru delarik ipini diteke aurrena, uka-mukarik gabe.

Badugu bigarrena, bera euskal-idazle bikaina izan ezik ere, ezpaitzion lanbide orri irautsi, bere eragitez eta bultzakaz euskeran ildorik edo atzerik barnena utzi zue-na: Larramendi beinki. Geroz, bigarren biribilkia, Larramendi'rena eritziko dugu. Mendiburu'ri, Kardaberaz'i, ta beste zenbait giputzi, bai Bizkaitarri ere artzekoa ba dite Larramendi'k. Oraintsu arte arengandik ikasi oi zuten onozko aldeko euskaldunak. Euskalerriko Revista'etan, Lore-jokuetan eta abar ageri-lanak diotenaz, ez da ilzali Larramendi. Aurten alaere, Euskalerra'k, eun urte-garre-nean zor beltza, lotsagarrixkoa utzi dio ainbestereinoko gizonari.

Zein dugu irugarren? Gizonik ipini nai ezpaduzu, ipini ezazu Bizkaia; euskaldun literatura pattalari onek eraunsi baitio gaurko kemena, Bidasoa'z emendi. Gipuzkoa'n etzegoen literatura Bizkaia'n bezain illa; baino Bizka'i'ko bizte edo birbizteak ango bizitze-txingiari bularrez aizegin dio. Mintza gaitezen bizkor: dezagun beko-ki. Azkue'ren Iztegi aundia sortu ezpalitza, oraingo euskerabizte onek ba zuken zulorik aski. Ala ere, liburu eder bat ziteken ori, balinba liburutegian alper egon bearra, erri-esnatze edo politika dardara gerta ezpalitza. Geroz irugarren biribilkia Arana-Goiri'rena bedi, bera euskal-idazle edo beintzat idazlari ez izanik ere<sup>1</sup>.

Ederrago balitzaizu, beste iru izen oek ar zenezazke: Laphurdi mendea, Gipuzkoa-mendea, Bizkai-mendea. Neri etzait ain eder atal-gite au; Axular'en gerokoa ezpai-ta, alegia, egun ere iraungi, ez atertu. Begira ezperen Laphurdi'n ari duten literaturari.

---

<sup>1</sup> Azkue: *Cancionero popular vaseo*, t. I., pág. 53; *Conferencias sobre música popular vasca*, pág. 62.

Iru biribilki oetaz gainera badituzu bere berezko edo beren gisa dijoazen idazle batzuk, neurtizlariek usuenik. Oriena bereiz ariko dut gaiak dakarren bezala.

## Begiratu bat

*Iru mende edo epoka oriei gain-begiratu bat.* Leen-mendea dugu oraino buruenik. Axular'engana bil diteke Laphurdi tipiko idazle-eli aundia: Etxeberri, Haraneder, Yoanategi, Arbelbide, Duvoisin, baita Xuberotar In-txauspe. Bizi direnetatik, Adema, Daranatz, Barbier, Otxobi (Moulier), Anxuberro (Saint Pierre), Zerbitzari (Elissalde), Etxepare Naparroa Barrenen, eta Constantin Xuberoa'n. Oriek oro Axular'en edo Axulartarren jario gozoa dute: mintzaira arraia, gazia, erraza. Andik onako Euskalerra'n, orien tarteko zinun Cruz Goyenetxe, Amayur'ko Apeza, ta duzu Larreko (Irigarai), gaurko mintzalarietan ez motelena. Gipuzkoa'n ere, gutxi bederik, agerida Axular'en edo Axulartarren atzea. Larramendik ezagun izan zituen laphurtarrak; Agirre'ren Erakusaldietan ere zantzuren bat usandu diteke; Arrue'ren imitazioan ez gutxiago. Lardizabal'ek irakurri izan zuen Etxeberri'ren Historia, baino ez du aren ixurkirik; ez Mendiburu'k ere, euskalki Naparra arren. Bizkaia'n berriz orok dakite Axular'en Gero ango euskalkiratu zuela Añibarro'k.

*Larramendi.* Onek bere eragite sendoa erauntsi dio bigarren idazle-mordoari, ez idaz-tankera edo estiloa, ez-paitigu euskal-idazkirik utzi. Aren *Ezina egina* edo *Impossible vencido* ta *Iztegia*: geroztik, Euskeraren aldeko lan ugari badugu. Arengandik etorri da Gipuzkoa'ra literatura, ez urria ere. Larramendi'k eman zion biotz eta kemen Oyartzuar Mendiburu ospetsuari, baita beste bere Anai Kardaberaz'i ere. Lardizabal, Arrue, ta abar ta abar, zer

edo zeren zordun zaizkio Aita Manuel'i. Ta nor ez Gipuzkoa'n naiz Bizkaia'n oraintsu arte? Bigarren idazlemordo onen izaera ta ariurria Larramendi'rena berarena da: euskeraren aldeko edo apologia. Euskera gora, euskera bera, euskera alako ta euskera olako, gure iraintzaleen buruzki. Eliz-literatura lekutzen ba dugu, gainerako guzia ortan ari dela dirudi. Neurtitzetan, Revista'etan, eta nonai, ez da beste kezkarik. Astarloa'k erderaz ez ezen, Mogel'ek eta Iztueta'k euskeraz ortara jo zuten geienaz. Literatura-mordo onen ilumbea edo itzala beintzat au da: alor edo landa medarregia artu du idazgaitako. Euskal biziera, oiturak, ez dire bear bezain gogoan artu. Gaizki-esaleen burukapean beti ari izan garala ematen du, ta beraz euskara an euskera emen, Euskalerrria andik, Euskalerrria emendi. Erdaltasunetik eta erdalkeritik aldegitea du xede idazle mordo onek. Landa au zabaltxeagotzeko Iztueta'k egin digu indarkarik edo aleginik aundiena Gipuzkoa'ko dantzakin eta Kondairarekin.

*Arana Goiri.* Noizbait ari izan arren, ez da euskal-idazlari izan; utzi ziguntxo, orregatik, ez da galtzeko. Jesukristoren Nekaustea Mateo Deunaren araura, Lenengo egutegi Bizkaitarra, ta poesi batzuk daduzkagu burutan. Ez politikaz bakarraz, bai bere idaztankeraz ere ildoa urratu digu. Euskera garbitzea ez ezen, euskeraz burutapen sendoak agertzea izan zuen xede ta asmo, ta garai artarako inork ardietsi zezakena ardietsi zizun. Aren ikasleetaz gero mintzatuko naiz, zertan atzeman, zertan utsegin duten. Andik onata euskera aurrera doa arek eman-ziztua geitzen dularik. Ez dakigu ilen ote den, agian ez, baino biziko ba da, geroak esanen du Arana'ren bultzaraz noraino ditekene gure mintzoa ta literatura.

Gain-begiratu au aski dugu oraingoz. Gero xeakaturko dugu, labur bederik, bakoitzaren lana.

## II. Euskaldunak eta euskera

### Lenbiziko euskaldunak

Lenbiziko euskadunetaz zer esanen dugu? Tutik ez-takigu, ipuin saila besterik. Zer ari edo arraza dugun, nongo ta nondik eta nola garan ez-takigu, jakinen ere ez onozkero, tinko beintzat. “Gu ez gara inoizko” –erantzun zion euskaldun batek Montmoreney’ri. Nongo ta nondik? Adan’engandik, alegia. Urrena... joan eta bila.

Euskalduna bere ariz basati ala etxetiar zenik ere enizuke atxiki-atxiki esanen. Kristau-legea artu zuen einean basati zela diote. Lenagorik? Asma or. Kristautzearekin gendatu zela agerian datza. Kristautuz gerozkoan ere izan ditu aldi ta aldi.

Gure arbasoak oian-sasi-arkaitz-artetik itxasora jo zuten, gosea berdinduko bazuten. An asi ziren etsi ta sendo, jateko-eske Terranova’raino baztartzan zirela. Gero Ameriketa gendatzean ez duzu atzena ta aulena izan euskalduna. Euskalduna nekazari ta itsas-gizon, funtsezko ta burudun, egitate arazoetan iraunkor eta itsatsi, bide-urratzaile; supizguari (familiari) erauntsia, ta orotan gaindi “Eskualdun fededun”.

Euskera, beste edozein erritako izkuntza bezain literaturarako gai dela esan bearrik eztago. Gramatika, Europa’n

denik ugariena da inolaz ere, itz-eratortzean eta itz-eraus-  
tean (*en la composición y derivación*). Itzik aski sartu zaigu  
arrotz-erritik, baino gure izkuntza landuala oilduko ditu-  
gu ezarian ezarian.

Euskarak du elhea labur eta eme  
erran nahi den hura laster duzu barne (Daranatz).

Hitz uts alferrik gabe, zalhu ta lañoki,  
gauza gorak, barnenak aiphatuz errecki.

Lau euskalki izan ditugu literaturadunak: Laphur-  
di'koa, Xubero'koa, Gipuzkoa'koa, Bizkai'koa. Zein bai-  
no zein euskalki diren obe, galde alperra ta gorrotagarria  
da. Bakoitza gai da, ta aski dugu.

### III. Poesi erritarra

Poesia naiz erritarra, naiz landua, bereiz arkiko dugu. Amaboskarren mendean badituzu “eresiak”, euskeran den literaturarik ederrenetakoak, beste gainerako poesi ta itz neurrigabe ta oro barne. Aoberokeriren bat esan ote dizut? Ez naski, adiskidea, ezpaituzu balinba ezagutzen poesi ori, ta ez da erraz, batean liburuka argitara gabe baitago, beste euskal-liburu askoren gisa, puskalaka, an emenka. Juan Carlos Guerra’ri esker, or daukagu bildurik liburu batean; baino liburu ori ere ez da, ondikoz!, geien eskuetarako, eta galdu diren olerkiak eta ezin irakurri ditezkenak, bear egiten dute. Euskerak ez duela literaturarik. Esatea da. Ez da arrigarri ori gure arerioak esatea, gerok ere esan oi baitugu; baino ezaguera geiegi gabe, alegia. XV’garren mendeko gure poesi bakar oriek, ez diote iñongo erriko erri-poesia’ri zorrik.

Iru aritara biltzen ditu J. E. Guerra’k kantu oriek: alderdikeri kantuak (Oñaz’tar Ganboa’rrenak eta Agramont’ar Beaumont’arrenak); ileta kantuak; gertaliski eta leloak. Orietan ba dire asko galdu izanak, beste batzuk puskalaka iraun dutenak, beste batzuk irakurri ezinak. Alda ditzagun bakar batzuk osorik badere.

*Bereterretxen kantua.* Lerin'go Conde Jaunak, Beaumont'arren buruzagi zenak, azpikeriz illarazi zuen Bereterretxe.

“Altzak eztu biotzik,  
ez gaztanberak ezurrik,  
enian uste erraiten ziela aitonen semek gezurrik.

Andoze'ko ibarra  
ala ibar luzia!  
Iruretan ebaki zaitan armarik gabe biotza.

Bereterretxe'k oeti  
neskatuari eztiki:  
abil eta so egin ezan, ageri denez gizonik”.

Neskatuak berela  
ikusi zian bezela  
irur dozena bazabiltzala leyo batetik bestera.

Bereterretxe'k leyoti:  
“Jaun Kuntuari goraintzi  
eun bei bazereitzola bere zezena ondoti”.

Jaun Kuntiak berala  
traidore batek bezala:  
“Bereterretx, aigu bortala, utzuliren aiz berala”.

Ama, indazut atorra,  
menturaz sekulakua!  
Bizi dena'k or (o) izanen du Bazko biaramena.

Marisantzen lasterra,  
Bostmendietan beera!  
Lakarri Buztanobian sartu da bi belaiñak errestra.

–”Buztanobi gaztia,  
ene anaie maitia,  
itzaz unik ezpalinbada, ene semia juan da!”



–”Arreba, ago ixilik,  
ez, otoi, egin nigarrik;  
ire semia bizi ba da, menturaz Mauliala da”.

Marisantzen lasterra  
Jaon Kuntiarene bortala!  
“!Ai, ei! ;eta, Jaona!, non duzie ene seme galanta?”

–Ik bai ena semerik<sup>2</sup>  
Bereterretxez besterik?

–Ezpeldoy altian dun ilik, abil, eraikan bizirik!”<sup>3</sup>  
Ezpeldoiko gentiak  
ala sendimentu gabiak,  
ila ain ulant, eta deusere etzakienak!

Ezpeldoiko alaba  
Margarita deitzen da;  
Bereterretxeen odoletik aurkaz biltzen ari da<sup>4</sup>

Ezpeldoiko bukata  
ala bukata ederra!  
Bereterretxe’n atorretarik iru dozena umen da.

Ez al da au edozein erritarako ere poesi bikaina?

*Milia Lastur’en eresia.* Alda dezagun Andra Milia’re  
eresia ere.

Zer ete da andra erdiaren zauria?  
sagar errea eta ardao gorria.  
Alabaya, kontrario da Milia,  
azpian lur otza, gañean arria.  
Lastur’era bear dozu, Milia,

---

<sup>2</sup> Ik bai ena...? = ik bai unan...?

<sup>3</sup> Eraikan = eraiki ezan

<sup>4</sup> Aurkaz = eskuzuloka

aita jaunak eresten dau elia,  
ama andreak apainketan obia.  
Ara bear dozu, Andre Milia!

Jausi da zerurean arria  
aurkitu dau Lastur'en torre barria,  
edegi dio almeneari erdia.  
Lastur'era bear dozu, Milia.

Arren, ene andra Milia Lastur'ko  
Peru Garzia'k egin deusku laburto,  
egin dau andra Marina Arrazolako,  
ezkon bekio, bere idea dauko.

—”Ez dauko Peru Garzia'k bearrik  
ain gatx andia apukaduagatik,  
zeruetako mandatua izanik  
andrari ok ala kunpli jasorik

Gizon txipi soil baten andra zan,  
atearte zabalean oi zan,  
giltza-porra andiaen jabe zan,  
onra asko kunplidu jakan.

*Alos-torre'ko kantua*k ere merezi luke osorik aldatzea; baino ezaguntxegoa delako, bai luzexkoa ere, utzi eginen dut.

*Beotibar'ko kanta*k. Bat aldatuko dizut, ederrena, ez ala ere nere ustez ain aspaldi-usai aundikoa. Gaurko gipuzkeraz esana dirudi. J. E. Guerra'k ahapaldi orien aspaldigoa ezin uka ditekela dio.

Beotibar'ko zelaiak,  
len ilunak, gaur alayak!  
Beotibar'ko arkaitzetan  
frantsesak gure oñetan.

Arro asko sartu ziran,  
umil asko irten ziran.

Oñaz, agintari aundia,  
zuretzat gure bizia!

Nora zuaz, Oñaz Jauna,  
Frantses jende arengana?  
Edur maluta ugaria,  
ugariago etsaya.

Larrean emaztetxuak,  
begian negar-malkuak.  
Atoz len bai len etxera,  
bestela oso galdu zera!

Aurrera, mutil maiteak,  
etxera dolorkumiak,  
il emen edo garaitu  
Oñaz Jaunak esaten du.

Zein gelditzen da atzian  
Oñaz ikusita aurrian?  
Zu zera nere nagusi,  
zurekin il edo bizi.

Juan dira emendik betiko,  
ez dira iñoiz etorriko;  
beti euskaldun mendiak  
ez besterentzat gaziak.

*Leloren kantua.* Au ere ezagun askia da, ta enaiz aldatetan ariko. *Egun bereko alarguntsa.* Au bai, aldatuko det.

Goizian goizik jeki nunduzun, ezkuntu nintzan goizian;  
bai eta ere zetaz beztitu ekhia jelki zenian.  
Etxekandere zabal nunduzun eguerdi erditan,  
bai eta ere alarguntsa gazte ekia sartu zenian<sup>5</sup>.

---

<sup>5</sup> Ekia = eguzkia

–Mus de Irigaray, ene Jaona, altxa izadazut buria,  
ala dolutzen ote zaizu enekila ezkuntzia?

–Ez, ez, etzitadazu dolutzen zure espusatzia,  
ez eta ere doluturen bizi nizano, maitia.

Nik banizuun maitetxo bat mundu ororen ixilik,  
mundu ororen ixilik eta Jinko Jaonari ageririk;  
buket bat igorri ditadazut lili arraroz eginik,  
lili arraroz eginik eta erdia pozuaturik.

–Zazpi urtez etxeki dizut gizon ila kanberan;  
egunaz lur otzian eta gayaz bi besuen artian,  
zitru-urez ukuzten nizun astian egun batian  
astian egun batian eta ostirale goizian.

Poesi eder onetaz bakoitzak esan beza derizkiona.  
Gure erri-poesiaren erakus-burutako naikoa ditugu oek.  
Gai oni garraizkola emainen dizugu erri poesiari dago-  
kiona, labur bederen.

## Pastoralak<sup>6</sup>

Xubero'ko Pastoral'ak edo atarian istiatzen dituten komeriak eztakigu noiz asi ziren, baino XV'garren mendean, beintzat asi bide ziren. Frantzia'ko misterioetatik antzeratuak edo dire. Agitz aipagarri ezpadire, aipagabe ezin-utziak dire euskal-literaturaren edestirik laburrenean ere. Ez bide dute poesi ugaririk –ezpaitzaizkit eskuetara–, ta zenbaitek diotenaren araura, ez ditet kanore aundirik emainen. Galdurik izan bear dute asko, baino

---

<sup>6</sup> “Études sur le théâtre basque”, *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, tomo IX, pág. 80.

oraindik ageri dire 80'tsu banaz beste. Xuberotar aipatu batek esan zidanaz, iraupen aundia bear da, gibel aundia, –ain luze ta gatz-gabe baitire– aiek bururen buru antzez-tu arte begira egoiteko. Laburrago balire ta yoriago, gogoz entzuten lirake Bidasoa'z emendik ere, ta gure erria isiatuko edo zaletuko litzake teatorako. Gure erriari axolik ez diola literaturaz... esatea merke da. Geroxeago ikusiko duzu baietz.

## Eske-leloak

Urtearo batzuetaz ibili oi dire mutilak eske, eguberri<sup>7</sup>, Santa Ageda'z, San Juan'ez, San Nikolas'ez; t. a. Poesi au aspaldikoa da, Axular ta baino askoz lenagokoa, ta Erroma'ko paganoengandik ixuria aldez aldez. Badituzu “mayak”, ¿Kalendas? Maias; bai Santander'en ere “Las Marzas” (Latineko “Martias”), eta an ere gurean bezalatsu eskatzen dute, emaiten dutenean onetsiz, eta ez dutenean gaitzetsiz:

En la tierra gracia y  
en el cielo gloria.

A los de esta casa  
solo les queremos  
que sarna perruna  
les cubra los huesos.

An goien goien lañoa,  
errekondoan otsoa,  
arkakusoak itoko al dik  
etxe ontako atsoa.

---

<sup>7</sup> “Olentxero”, *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, tomo IX, pág. 141.

Euskalerría'n geienean, ahapaldi berdintsuak esaten dire, ta bakan izanen dire errian beintzat ez dakitzatenak. Ala ere ahapaldi batzuk aldakuntzekin eta idurin edo bekalde batzuk ipiniko ditut:

Izar eder bat ateratzen da  
urtean egun batean;  
urtean egun batean eta  
ua San Juan goizean (A. N.-lar).

San Silbestre'k ekarri digu  
izar ederra giyari;  
gaurko gaba emen pasa dezagun  
ate onduan kantari (A. N. bera).

An goien goien izarra,  
errekondoan lizarra,  
etxe ontako nagusi jaunak  
urre gorrizko bizarra.

Urre gorrizko bizarra eta  
Zilar-urrezko espalda;  
erreal txikiz egina dauka  
Elizarako galtzara (A. N.-lar).

Beste nonbaitu ez dute ain egoki esaten bigarren ahapaldi ori:

Urre gorrizko bizarra eta  
diamantezko espalda:  
berori bezain gizon presturik  
erri onetan ez al da (A. N. -bera, G-bidan).

Naparroa'n da Bardena.  
Kaparroso'ren urrena;  
etxakandrea kopla dezagun  
nagusiaren urrena (A. N. -lar).

An goien goien elorri  
ondoan jota erori:  
etxe ontako etxeakoandreak  
Ama Birjiña dirudi (A. N. -lar).

Askan eder da garia  
aren gañean txoria,  
eraztuneak bildu dezake  
andretxoaren gerria (A. N. -lar).

Usoak egal gorrizu,  
Moko-aldea lumazu:  
orren aingeru txukun polita  
nondik agertu zera zu? (A. N. -lar).

Sentitzen zaitut sentitzen  
ari zarala jekitzen,  
zure gerriko giltze-soñuak  
emendixe tut aditzen (A. N. -lar).

Oramayean sagua,  
aren begira katua,  
etxe ontako okelarekin  
ez da beteko zakua (A. N. -lar).

Beste aldakuntza batzuk ikus ditezke *Revista Internacional de los Estudios Vascos*'ean (esan-lekua) eta *Anuario de la Sociedad Eusko-Folklore*, II, 1922, pág. 47 sq.

## Toberak

Ezkon-aitzin gabeen andregaiari mutilek kantatzen zizkieten kantak ziren toberak. Galduxe dire. Aipa ditekenez poesirik ez dizugu arkitzen, eta labur-sur, goazen aurrera.<sup>8</sup>

---

<sup>8</sup> *Euskalerrriaren Alde*, t. X, pág. 41; Manuel Lecuona, *Las toberas*.

## Kantutegiak

Azkue'ren *Kantutegia* eta A. *Donostia'rena*. Gure poesia, kantatzeko egina da, aspaldiko lirikoena bezela, ta kantuarekin sortua ere da, aldeurretik paperean idatzi gabe. Nekazari, ikazkile t. a. dire itz orien jabeak, geienak, irakurtzen ere etzekitenak. Azkue'ren eta A. Donostia'ren lelotegietan ediren ditezke polit askiak, maite-leloak beintzat, baita bakarren batzuk ileta-leloak, *Egun bereko alarguntsa* buruen dutelarik. Maite-leloetan badi-tuzu *Atea dizut kirrinkari*, *Auntxo gazte*, *Arboletan den ederrena*, *Xurian xuri*, *Zazpi urthe ba duzu*, *Munduan den ederrena*, t. a., agitz poesi politak. Emen duzu batxo:

Arboletan den ederrena da  
aritz edo pagoa;  
nik maiteño bat bakar izan ta  
arek bestetan gogoa.  
Jaun zerukoak eman dezola  
nereganako asmoa.

Amodioa xoroa dela  
mundo guziak badaki:  
nik maiteño bat bakar izan ta  
ura bestek eramaki.  
Enuke penarik baliro bizi  
enekin baino obeki!

## Bertsolariek (sic)

Gai oni gagozkiola esan dezagun zerbait. Esana da, ez zur esana, gure erriari ez diola literaturaz axolik. Neurritzak entzuteko beintzat, itoa duzu gure erria. Perrietan zoaz Tolosa'ra edo Gernika'ra edo noranai, ta kantari baten inguruan an dauzkazu gure baserritarrak txoroa



bezala noiz bukatuko, bertso berri ayek amar xentimoren ordez arrapazka eramateko. Bestelako literatura'rik nai ezpadu ere, au maite du, ta onek emaiten dio aznaia, ta onetatik balia bear ginuke errian literatura gisakoa sar-tzeko. Erriko indar-gizon edo atletak, apustu, gertakari latz eta abar, gosegarri zaizkio gure baserritarrari. Eskolatu gabeko neurtizlari baten lana baino ohea egin dezake artan ikasiak. Ez da lotsakizun gizon eskolatu ortan ari bear izaitea. Egia da, gure erriak ez duela deus askorik irakurri nai, liburuz beintzat. Oraindio ere, liburu erostean, ipuin-liburu ba da ere, Meza entzuteko biderik bai ote duen galdegiten du. *Argia*'n ere, bein baino geiagotan ikusirik gaude "Ebangelioa" irakurtzen dutela aurrenik, edo batzu batzuan bakarrik. Gainerontzean liburuak ez dite gose aundirik emaiten. Ezin uka diteke ordea, esan dugun bezala, neurtitzetarako itoa dela euskalduna.

Ta, zer balio du literatura xarpil onek? Asko balio, gutxi balio, gizon landuak ere ez lezake burutapen sendorik ez ugaririk atera bat-batean, kanta-ala ari bear balu. Alare gure neurtizlari ikasgabe oriek, burudun baitire, izketa txanbelina ta iduripen mardula ageri ez arren, badute askotan bere funtsa edo mamia. Zear-mintzo'arako (ironia'rako) yayoa duzu euskera, gaiekoa. Bai euskaldunek ere, ta zenbait gizon landuk ez dezakena ere, gure erritar nekazari batek ba dezake gizagajoak. Ateraldi zorrotza, par-eragilea baino onetsiago duzu literaturan zear-mintzo par-irriduna. Ortan nabari dituzu gure bertsolari oriek, ta orien literaturak ere badu norbaitek uste baino gatz geiago. Besteren izkuntzara aldatu nai dunean zaina ta muina ezin alda ditezke; berekin gordetzen du euskerak, beste edozein izkuntzak bezala, bere xorroxtasuna.

Gaurko bertsolarien artean aipagarri dugu Enbeita Muxikarra.

## IV. Axular aurea

Esana da, euskalduna “eginetan luze, esanetan labur” dela, ta egiagorik ez da izan oraino. Bere gisa edo bere baitaz etzuen bear ba da oraindaino libururik argitara izanen. Errege, errege-gai ta gizon ospetsuren batzuek eragin bear izan zioten. Argatikan duzu Naparroa Barrena edo Baxenabarre euskal idazketan aurrenik.

Bearrik Naparroa'ko Erregina Joana! Arek itzularazi bait zion Leizarraga'ri Testament Berria. Gure egunetantsu ere, nor dugu Biblia osoaren itzularazle? Luis Luziano Bonaparte. Napoleon'en ilobasoa, erregetarra. Duvoisin'en ilzulpena ez ezen Bidasoa'z onoztikoena ere, nori zor zaio? Emen ez dugu olako Erregerik ez erregeondorik, ez jaunik izan, eta oraino Biblia osoa ez dugu euskeraratu, Bidasoa'z aindi duten bezala.

### Dechepare (1545)

*Linguae vasconum primitiae. Euskeraren leen-zituak.* Arriturik zegoen Dechepare euskaldun artean “izan baita eta baita scientia guzietan lettratu handirik.... nola batere ezten assayatu bere lengoage propriaren favoretan heuskaraz zerbait obra egitera eta skributan imeitera, zeren

ladin publiko mundu guzietara, bertze lengoagiak bezala hain skribatzeko hon dela”. “Bertze nazione orok uste dute ezin deusere skriba daiteiela lengoage hartan”.

Dechepare’k erakutsi digu baietz argi ta garbi. Ez da biotzaldi aundiekiko poeta, baino bai leguna, itz utsik eztuna, jaso (*correcto*), lenbizikoa ez ezik, gaurkoa ere izateko; idaztankera lasterra ta muinduna du, ebakia ta adi-erraza. Neurria erderaren *cuaderna via* maizenik, eta neurtitza amasei silabaduna, kantatu gabe mingatzeko nonbait-orkoa. Joale-antzoko miin-bakarra (*monotono*) dena: orixe. Gaiari dagokiola, idaztankera ere erakustezkoa (*didacticoa*) du: *Doctrina Christiana, Amar manamenduiak*, eta a. Eutsi erakusburutako:

Anhitz gendez miraz nago neure buruiaz lehenik  
nola gauden mundu hunekin hain bortizki josirik  
hanbat gende dakusula hunek enganaturik,  
oranokoak igorri tu oro buluzkorrik,  
eta eztute gerokoek hantik eskapatzerik.

Person ori hil denian hirur zaiti egiten,  
gorputz ori usteltzera lur otzian egoitzen,  
unharzuna ahaidiek bertan dute partitzen,  
arima gaixoa dabilela norat ahal dagien,  
hain viage bortitzean compaña faltatzen.

Bekaldetu bedi *Vuela el tren atravesando la monótona llanura*. Noizbait ere oitu du zortziko nagusia poesi’ren baten asieran. Maite leloen aurreneko neurtitzetan bi oek dakartzi:

Bertzek bertzerik gogoan eta  
nik Andre dona Maria.

Bestenaz maite-leloetan ba du baten bat gordin-antza. Gai onetan biotzak ere zerbait lagunegiten dio: asko

ikusia bide zen. Bere *Kantuia*'n ere asceta-usai apurra dario, ta liriko baino moral-erakuslego ageri da. Edozein erritako leen poetak ikusiaz, Dechepare'k eluke izen ori oso-oso ostua. Aren neurtitzetatik gaurkoetara eztago Villasandino'rengandik Herrera'renganaño bide. Neurtitzerdiko utsarte edo ebakia ez du beti-beti bereizten.

## Leizarraga

*Bibliaren euskeratzea.* Leizarraga'ren izkuntza “oraino traslationetan beintzat usatu gabea” zen (Erreginari). Gainera itzulketan zeatz ari bearra, al zuen zeatzena edo “fidelkiena”, ta etzezaken beste edozein gaietan bezala biur-gaetik aldegin. Jainkoaren “hitzari deus edeki eztakion, ez eraxiki, egin ahal dudan fidelkiena egin dudala” (ibid.).

Euskalkiaren bat-egiteari ere begira zion: “guziei adieraziteari iarreiki gatzaitza, eta ez xoil, edozein lekuko lengoage bereziri; eta badakigu ezen, denborarekin anhitz eta anhitz hitz eta mintzatzeko manera eridenen dela obra huntan bertzela hobeki erran zatenik (*Heuskaldunei*). Bai naski, ba zekien zenbait itz eta esaera obeki esan zitezkelat euskeraz, baino ala ere lardaska-samar egina da euskeratze ori: latinean dagon bezalatsu utzia. Ba dire itz eder bakar batzu, labaki zabalean zizek-antzo. Oriek ar dezazkegu iruditu txarrik eta begi-okertzerik gabe, ezpaitzion yaramon itz-berritzeari. Artaz, balio aundiagokoak. Gramatiko'ak ere euskal-aditz edo berbo'rik ugariena Leizarraga'n arki dezake. Ez dagokit orretaz iritzi emaita. Leizarraga'k, beraz, euskal-aditza ugaria eman digu, itzulketa lardaska, izketa erraza, errazegia, ta idaztanka ez gisakoa. Torizu erakusburu bat:

“Eta Jakobek engendra zezan Joseph, Mariaren senharra, zeinaganik yayo izan baita Jesus, zein erraiten baita Christ”.

Badakizu, adiskide: ez Maria'rengandik, Maria'ren senarrarengandik jayo zen Jesukristo, Leizarraga'k dionaz. Olako utsegite mandorik ez duzu arkituko Leizarraga baitan, baino euskera olakotsua beti. Leizarraga'ren euskeratik egun ari dugunera ba duzu bidealdi.

## Bonaparte

*Luis Luciano Bonaparte: Biblia osoa euskeraz.* Au ez dagokio Axular-aurreari, baino Bibliaren itzulketari dagokion apurra erabat sailtzearren eta labur-naiez emaiten dizut emen. Errege-gai Bonaparte'z ari bitez luze adina zabal mintzo-zaleak; nik literatura dizut gai, antzez idatzitakoa. Gai onetan ere zor aundia diogu euskaldunak. Laphurdi'ko euskerara zala bide ta aren diruz itzuli ta argitara zen Biblia osoa: Duvoisin duzu Biblia osoaren aurreneko euskerazale (1859 gn). Biblia zati batzuk ere itzularazi zituen Bizkaierara (Uriarte), Giputzerara (Otaegi), Baztan'go euskalkira (Etxenike), ta Xubero'kora (Intxauspe). Duvoisin'ek egin-lana Leizarraga'rena ez bezelakoa da. Eginalak egina duzu euskerara bear bezalaten, eta euskeraren jabe baitzen, Leizarraga'rengandik Duvoisin'engana argi-urratsetik eguerdira adina tarte badago. Laborantza'ren egille onek euskera ederki derabil; baino Biblia'ren biurtzean orretaz gaindi oldar edo indarka bizkorra egin dizu. Berak itz berri anitz antolatu bear izan zituen, eta aiek oro ez dire artzekoak; baino asko ta asko euskeran sartuko direnak. Erri euskeraren ezaguera barnea zizun, eta berez ikastetsua ta lanari lotua baitzen, arek egin-lana inork ez dizu goitu oraino.

## V. Axular (1643)

Peru Axular, Naparroa'ko Urdazubi'n jaioa, ta Laphurdi'ko euskeraz idatzi zuena duzu aurki euskal-idazlerik bikainena, oraintsudaino. *Geroko gero* edo Jainkoarengana biurtzeko luzamena zein kaltegarri den erakusten digu. Liburu ori ez da guzia bere buruz asmatua. Berak ere ba dio asi-aurrean: "Gogomenak, Eskritura Saindutik, Elizako Dotoretatik eta zuhurren liburuetarik Axular, Sarako Errotorak bilduak". Bein batez lagunarte on batean ari zirela, solasak ekarri zuen, etzuela deusek ere hanbat kalte egiten arimako eta ez gorputzeko ere, nola egitekoen geroko uzteak, eta on zatekeiela gauza hunetzaz liburu baten euskaraz egitea. "Konpainia berean galdegin zen nori emanen zeikan liburua egiteko kargua. Eta bertze guzien artetik asi zeizkidan niri neroni aditzera emaiten lehenbizian kheinuz, eta ayeruz, eta gero azkenean klarki eta ageriz, nik behar nituela egiteko hartan eskuak sartu. Ordea nola ezpainintzen neure buruaz fida, desenkusatu nintzen ahal bezanbat. Baina alferrik, zeren hain zinez eta batetan lothu zizkidan, non ezetz erraiteko bide guztiak hertsu baitzerauzkidaten". Lagun aiek ezagutu zuten nonbait Axular'ek zer egin zezaken. *Gero* ori bi liburutan zatiturik egin nai zuen,

“baina ikhususirik zein gauza guti edireiten den euskaraz eskiribaturik, gogan-behartu naiz eta beldurtu, eztiren bideak asko segur eta garbi: baden bitartean zenbait trabu edo behaztopa harri. Eta halatan hartu dut gogo lehenbiziko liburu hunen lehenik benturatzeko, eta berri yakitera bezala aitzinerat igortzeko. Hunek zer iragaiten den, zer begitarte izaiten duen, eta nor nola mintzo den, abisu eman diazadan”. Onozkero badakigu Axular’en liburu oriek zer begitarte izan duten Euskalerrria’n. Bidasoa’z aindi asko irakurria da Axular, eta Bidasoa’z onoztik, orain beintzat, irakurtzeko gogoia etorri zaye zenbaiti, ta maizago irakurtzen ezpada, liburu orien ale-rik arkitzen ez delako da, ta ez besterengatik. Damurik ez dugu ikusiko nai bezain laister *Gero*’ren ekoispen edo edizione berria! Axular bezalako idazle asko izan balitu euskerak, dagon baino landuagoa zegoen onezkero. “Baldin egin balitz euskaraz –dio Axular’ek– hanbat liburu nola egin baita latinez, frantsesez edo bertze erdaraz eta hizkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ezpada, Euskaldunek berek dute falta, ta ez euskarak”.

Urte gutxi duela idatzi zuen Julio Urkijo jaunak, Axular’en *Gero* orren iturburuetatik bat ote zen Granada’ko Fray Luis. Granada’reñ jario gutxi ageri da, Axular’en toki bakar batzuk itzez itz euskeratuak baldin badire ere. Lenbiziko zatian ez da zantzurik ere usmatzen; bigarrenetan idazburu batzuk eta parrafo’reñ bat besterik ez. Baino Granada’k berak ere Elizaren Gurasoengandik artzen zuen bere liburuetako gaia. Axular’ek duen guzia erderatik euskeratua balitza ere eluke gutxiago balio, ederki itzalgaiztu baitu erdera ori. Euskeraz burutatua dirudi Axular’en liburua.

Gaurko irakurlea ez bijoa Axular’engana euskera garbi-garbiaren billa. Mingarri idurituko zaio ainbeste erdal-itx ikustea. Axular’en asmoa, burutapena den bezala

ta argi agertzea da, ta ez dijoa igesi beste asko bezala buruan daukana adieraztetik. Asko ta asko, gaur ere, erderaren igesi dijoazela, burutapenaren igesi dabilta. Alaere Axular'ek euskal-itz eder ugari ba du, Mendiburu'k baino ugarigo. Axular bere itzez zuzendua edo garbitua eman liteke dagon baino txukunago. Axular'en idaztan-kerak bizia da, arraia, garbia, ta zainduna. Naiz bitxikeri edo axekarako, naiz funtsez eta gogor mintzatzeko gai dago beti. Orrek eman dio Laphurdi'ko euskalkiari bere joera ta aria.<sup>9</sup>

Onen atzetik etorri da idazle-sail ederra Laphurdi'ra. Laphurdiz esan diteke bere denboran Larramendi'k ziona: “en lo impreso nos hace ventaja a todos el labor-tano”. Gaur bertan ere irakurri beintzat an egiten da geienik. Geroz bai idatzi ere. Martial'ek esan zuana, alegia: *non scribit cuius carmina nemo legit* = “ire neurtitzak inork irakurtzen ez ba ditu, ik ez duk idazten, ez idaztea bezala duk ori”. Laphurtar guzietaz zerbait esan bear banu, luzatu eginen nitzake. Jaunenak edo buruenak bakarrik aipatuko ditut bada.

---

<sup>9</sup> Donostia'ko *Argia*'k itzeman zigun edo asmo ba zuen behintzat Axular berriro argitaratzea. Eztakigu zertan ari den. Urkijo jaunak ere asi zuen. A. Añibarro'ren bizkaierara itzulpena, ta eztakigu noiz ikusiko dugun. Agian laister.



## VI. Axulartarrak

### Joannes Etxeberri

*Eskuararen hatsapenak* (1712). Julio Urkijo jaunaren esku zabalari esker, irakur dezazkegu batean Joannes Etxeberri'ren idaz-lanak. Au dugu Axulartarrik gartsuena. Sara'n jaioa bera, Gipuzkoa'ko Azkoitia'n sendalari izana, Dotor edo Irakasle, euskera, frantses-erdera, gaztel-erdera, latina, gisaz erabili oi zituena. Axular'ek Jainkozko gauzetara bezala Etxeberri'k jakingaietara egoki zuen euskera. *Latin ikhasteko hatsapenak* eskaini zizkion Euskal-erriari. Aurretik dakartzi *Eskuararen hatsapenak*. Larramendi'k bere *Iztegi'*ko itz-aurrean bezalatsu, Grammatica orren aurretik emaiten ditu "euskeraren zuhurtziaren frogak, eskuara garbia dela, noblea dela, bertze izkuntzetarik ethorkirik gabekoa dela, zenbat gisetakoa den eta nondik heldu den euskaldunen mintzaira differentea dela, eta eskuara guztietan bat dela". Mariana'ren eta beste gaizkiesaleen buruzki goraki adiarazten du, euskera gai dala ikhulurako ez ezen jakingaietan ere iardukitzeko. Larramendi'k erderaz ari izan zituen gairik geientsunak, euskeraz ari izan zituen Etxeberri'k, Julio Urkijo jaunak oarrarazten duenaz. Esanik dago onezkero,

Etxeberri'ren lana kanorezkoa (importantea) dela. Karmelo Etxegarai zenak esan izan zuen, euskal-idazleak beren buruz edo beren gisa joan oi zirela, bakaturik, bata besteren berririk gabe, ta kutsurik gabe. Laphurtarretan beintzat ez dirudi ala denik, esanen dut Urkijo jaunarekin. Etxeberri'k, beste asko laphurtarrek bezala, Axular artu zuen bere buruzagitzat eta gogotik ospatu ere. "Axular, Sarako Errotora, eskuarazko autoretarik hautuena, eta famatuena". "Egiazki Eskualherrian hau da bakharra, hanbat autoren liburuetan zauntzan gauzek (sic) arantzepetik atherarik bezala eta Theologiaren mami hautua bildurik, eskuaraz ederkienik argitara eman darokuna. Halatan beraz baderraket, eskuarazko autoretarik hau dela Aitzindaria. Buruzagia eta lehena" (pág. 61). Sara'ko euskera zekien. "Euskal-herri guzian ospe handitakoa", eta Axular irakurri eta Etxeberri irakurri, ezin uka diteke antza badutela. Oldartu zen arloa edo landa zabaltzen. Arteraino Eliz-gauzetan bakarretan erabil zuten izkuntza, yalgiairazi zuen jakingaietara ere. Filosofoen esanak eta poeta'etak eta abar egoki euskeraratzen ditu. Laphurdi'ko literaturan ezin-utzia da Etxeberri.

## Larregi

*Testament Berria* (1775). Bi liburutan eman zigun Larregi'k *Testament zaharreko eta berriko historia, M. de Rayaanmont-ek izan zuenetik berriro eskararat itzulia...*

"Ene artharik handiena izan da, –dio– klarki mintzatzea, eskalerriz guzian adituren nauten bezala. Arrazoin hunek berak erakharri nau ene bortxa eta ahalik gutiena ba da ere, lerratzerat frantseskara diren hitz batzutarat. Horra beraz zergatik, ene burua hobeki adiarazi nahiz baliatu behar izan naizen zenbait hitz bakoitzez, nahiko nuen bezain eskara garbian ez direnez".

Alaere egungo euskaldunak ez luke alperrik irakurriko Larregi'ren historia. Ez du euskera garbi-garbia; baino ez mordoiloa ere.

## Haraneder

*Testament Berria* (1740-1855). Aspaldi irakurri nituen Haraneder'en xati batzuek Arbelbide'ren liburu eder batean: *Jainkoaren Deia*'n. Noizbait ere nere eskuetara da Haraneder'en *Testament Berria* bera. Eun urte ta geiagotan 1740'tik 1855'raino argitara gabe egon izan zen. Dassance'k eta Harriet'ek argitarazi zuten. Laphurdi'n baditute lau Evangelioen itzulpen ederrak; baino katolikoetan Haraneder'ena da aurrena, Leizarraga protestanta baitzen, alegia. Euskera ederra, ugaria, garbia du. Itz bakar batzuk berritzen ere ditu. Mingarri da, euskal libururik geienetaz esan ditekena onetaz ere esan bearra. Nork erabil dezake eskuetan? Nork ezagutzen du? Damurik, ez euskaldunik geienak!

Haraneder'ek berak euskeraratu zituen S. Prantzisko Sales'koaren *Philotea* (1749) eta Scupoli'ren *Gudu izpirituala* (1750). Atsegin aundiz irakur ditezke. Bakantxo arkituko dire Euskalerrria'n.

## Arbelbide

*Jinkoaren Deia edo bokazionea* (1887) eta *Igandea edo Jaunaren eguna* (1895), ditu Arbelbide Kalongeak, ezagutzen dugunik. Bi liburu oriek mami utsa dire, bururen buru irakurri arteraino betarik eta egonik emaiten ez dutenak. Euskalki edo dialektoak zerbait naasten dituela, egia; baino barkakizun da orregatik.

Arbelbide'ren aitzin-solasak ere ongi burutatuak eta mintzo ederrean esanak dire. Irakur bedi batez ere A.

Yoannategi'ren Sainduen Bizitteen bigarren liburuari eman zion aitzin-solhasa. Erabiltzez eta erriz baino areago zekien euskera liburuetako ikastez, eta ala ba ditu utsegintxo batzuk aditza edo verbo'an.

Esan dezagun aspertu gabe: euskaldun askok eza gutzen ote ditute liburu eder oriek?

## Yoannategi

Au dut euskal-idazleetan maiteena. “Eskuara ederrarengatik aipatuak diren liburu batzu” irakurri izan zituen bere orien antolatzeke, ta “herriz herri ibili ere bai (herria) nola mintzo den”. Geroz Aita Yoannategi'ren *Sainduen Bizitzeak*, ederki idatziak izaiteko bidea badute. 1876'garrenean argitara zituen *Ehun bat Sainduen Bizitze*, eta gendea geiagoren eske zegokion. Idazkera biguina, ixurbera, argia du. Ondikoz!, aren liburuak ere ez dabilta edozeinen eskuetan; baino bein eskuetara ezkeru, txoratzen du Yoannategi'k. A. Yoannategi, Beditanoa, Sara'n Bikario izana, erriz euskaldun ona ta ikastez ez motela. Laphurdi'ko idazleen guna ta mamia berekin du. Euskera garbia, baino adi-erraza. Iketa edo toketa egoki derabil. Sainduen Bizitzetan Garagarrileraino iritxi zen. Andik aurrerakoa nik ez dut beintzat ikusi, ta bietatik lenbiziko liburua agortua dela badakigu.

## Intxauspe

Intxauspe apaiza, Xuberotarra, gero Kalongea, euskal-idazlerik landuenetakoa izan duzu. Bonaparte'ren aginduz S. Mateo'ren Evangelioa poliki euskeraratu zuen. *Jesukristen imitazionea* (1883) itzuli zigun, eta beste liburuto ta aitzinsolhas edo itzaurre batzuk ere bai. *Mariaren hilabethia* duzu nere aburuz Xubero'n ez ezen

Euskalerria'n den libururik aipagarrienetako idaztanke-raz. Ez dut uste euskera zaintsuagorik, muindunagorik, gauzek labur eta indarrez esateko ta barne sarrarazteko euskaldunagorik oraindaino idatzi denik.

Alaere beste lan batengatik aipabide aundiago duela iduri zait. Intxauspe'k atera zigun 1864'garrenean Axular aundiaren irugarren ekhoizte edo argitarapena, ta ari esker irakurri nuen aurrenik, gerokoan bigarrena arkitu ba dut ere. Aitzin-solhasean ageri da Intxauspe zen bezalako idazlea. Norbaitek gaitzitu dio Axular aldatuxe egin due-la lenbiziko argitapenetik; baino onetan bere burua garbitzen du Intxauspe'k: "guti tokitan behar izan dugu Axularen mintzalia estali, aphaindu edo aldatu, orainko yenden delikatutasunagatik. Axular'en denboran, bai erdaraz, bai euskeraz, orai baino librokiago eta nasaikiago mintzo ziren; gauzen bere izenaz deitzeaz nehor etzen asaldatzen. Oraiko azturak, nahiz eztiren ordukoak baino hobego, ez garbiago, bai ordea, minberago dira beharriak; eta benturaz gogoia ere gaizkiaren phentsatzera zalhuago ta lasterrago. Minberatasun horren ariaz eta amo-reakatik arima garbienek probetxuekin irakur ahal dezaten Axularren liburu ederra, garbitu, leuntu eta aphaindu ditugu lekhu harro, zakar, eta gordinegi zirenak; alabaina osorik uzten dugularik Axularren lanegina" (*Aitzin-solhasa*, IX).

Axulartarra da Iraxauspe ere, *Gero* aipatua gogoz irakurria. Etxeberri'rekin goraiatzen digu Axular euskalidazleen tuturruraino. "Baditake, guztiarekin, euskara eskiriba daitekeiela Axularek iskiribatu duen baino arthezkiago; baina nork erranen du mintza ditekela hobeki? Hunetan guztien, bai lehenekoen, bai oraikoen, nabusi eta buruzagi da Axular. Nehork ez du hain ederki, hain garbiki, hain lañoki eta hain ugariki euskara mintzatu. Guziek behar diogu gure burua biluzi, agur egin eta nabusi ezagutu (*Aitzinsolhasa*, X).

Euskal-aditza edo Verbo'a ta beste lanik ere badu  
Intxauspe jaun jakintsuak; baino orain enaiz Gramati-  
co-etaz ari.

## VII. Oraingo idazle laphurtarrak

### *Eskualduna ta Gure Herria*

Ez gaizteke nasai mintzo gurekin bizi direnetaz. Bertanegi daude, begien ondoegian aiei bear bezala begiratzeko. Laphurdi'n badituzu gure artekoetan bai lenagokoetan ere idazle ugarigo; baino ez dugu luzatu nai. Kalonge, apaiz, mediku ta abar, oraindano bezala ederki ari dire orain ere. Laphurdi'ko euskalkia landuxe dute ta lantzeari darraizkio. Baiona'ko astekari *Eskualduna*'n amaika mintzaldi goxo irakur diteke berrogei-garren urte ontan. Oraintsu zazpi urte duela asi den *Gure Herria*'n ere or ari dituzu idazle apainak. Ez ditugu denak aipatu-ko; aisa itzuriko digute bakarren batzuk. Barka bezate. Nik ezagutzen dizkizut Adema osaba-ilobak (osabaz ge-roago ariko naiz), Daranatz naiz itz neurrigabeetan naiz neurtuetan bizkorra ta biziki euskalduna; Hiriart, asteroko *Eskualduna*'n Ebangelioa agertzen duena; Barbier, *Ama Birjina Lurden*, *Supazter Xokoan* eta *Piarres*'en egile bikaina, ta klopari ere garaia; Otxobi (Moulier) alegi ari-nen, zailuen, gazien jabea; Anxuberro (Saint Pierre) *Eskualduna*'ren zuzendaria, ainbeste mintzaldi eder egin dituen. Zerbitzari'k dio *Gure Herria*'n: "Euskal-herrian

egundaino izatu ote da Axular eta oro barne olako idazlerik? (ilbeltz-otsail, pág. 70). Zerbitzari bera, (Elissalde), orien ondo ondokoa; Etxepare ta Constantin sendagi-leak, beren euskalkian ager nabari direnak... Bidasoa'z aindikoak barkatuko al didate besterik aipatzen ezpadut. Euskaltzaindia'z mintzatuko naizenean beste bakar batzuk izendatuko ditut.



## VIII. Laphurdiko poeta landuak edo erdi-landuak

### Oihenart (1657)

Gizon landua ta asko-jakina duzu Oihenart. Atso-titzak edo errefrauak biltzen ari izan zelako esker onik eman bear diogu euskaldunak. Baita ere poeta landuxea izanik, neurtitz politak utzi zizkigulako. Etxepare baino landuagoa, zailuagoa, arinagoa. Maite-leloetan ari izan zen maizenik. Baditu burutapen ugari, erderatik artu arren, euskerara ederki egokitzen dituenak. Bein edo bein bereberezko burutapena bide du. Maitearen eskuetaz dio:

... eskua argi  
nola arroltze, berri erruna.

Eskua argi, arroltze errun-berria bezala. Euskal-yoskerarik eztute neurtitz oek, baino arruntean bai Oihenart'enak.

Ortzak aintzintzen txuriz  
e (do) zein esne ixurkorri

Gainerakoz bihotza  
ala urritxa ala ordotsa,

duen, isterbegiak  
porogatuz biotsa.

Gainerakoz, biotza urritxa (ezi-bera) duen ala ordotza (ezi-kaitza), arerioak proगतutakoan esan beza.

Biblia'ren usaia ere ba dario noizpenka.

Neurketa Dechepare'k baino banakoitzagoa: zortzi silabaduna naiz bere bera, naiz zazpikoarekin naaste badarabila; zazpikoa ere bai, seirekoaz, naiz zazpikoaz antai bedi ahapaldia. Bost silabadun neurtitz lo-argarria ere oitu zuen. Azkenik gerka-latiñen Asklepiade-ahapaldia euskerara aldatu zigun, edo antzekoa.

Gau-egun goiz-arrats, edate-yatean  
Ebilte-gelditze, yaikite-etzatean  
zuzaz dizut pensamendu  
ene penen luzamendu.

Gaur den egunean ere lanik aski Oihenart'en neurtitzak baino legunagorik, landuagorik, jasoagorik egiten. *Notitia utriusque Vasconiae* latinez baitago, besterentzat igorriko dizut, euskal-arloari nagokala. Latina ere landuxkoa zizun Oihenart'ek eta ez da arrigarri euskal-idazle bikaina izan izatea.

## Elizanburu

*Nere etxea edo laboraria* (1860-65). Etxe-jaun eta nekazari, aiten aitek aukeratutako lurra lantzen ari dena, deusen ments ez dena, mintzalari goxoa ta garbia, "eskualdun fededun"... poeta-gai dela igarri dikioko. Etxea ta etxeakoak maite, ta Jainkoaren itzalean bizi, zer zoriona! Zorion ori argi nabari da *Nere etxea edo laboraria* deritzon poesian. Ardandegietan ere entzun izan ditugu ahapaldi batzuk, euskaldunak poesia'rako axolkabe ez

dirrela ilargiarazteko. Ain ezaguna ta luzexkoa delako ez ditugu osotara aldatuko; bai orde ahapaldi batzuk, bali-teke guzi-guziek ez ezagutzea-ta.

Ikusten duzu goizean  
argia hasten denean,  
menditto baten gainean  
etxe ttipitto aitzintxuri bat<sup>10</sup>  
lau haitz handiren artean,  
iturriño bat aldean,  
xakur xuri bat atean?  
Han bizi naiz ni bakean.

Naiz ez den gaztelua,  
maite dut nik sorlekhua,  
aiten aitek hautatua.  
Etxetik kanpo zait iduritzen  
nonbait naizela galdua;  
nola han bainaiz sortua,  
han utziko dut mundua  
galtzen ez badut zentzua.  
(...)

Etxean ditut nereak  
Akhilo, aitzur, goldeak,  
uztarri eta hedeak.  
Yazko bihiaz ditut oraino<sup>11</sup>  
zoko guziak beteak;  
nola iragan urtheak  
ematen badu bertzeak  
ez gaitu hilen goseak.  
Landako hiru behiak  
esnez hanpatu dithiak

---

<sup>10</sup> Aurre-aldea txuria duena

<sup>11</sup> Igazko alez ditut oraino

aratze eta ergiak;  
bi idi handi kopetazuri  
bizkarbeltz adar-handiak,  
zikhiro, bildots guriak,  
ahuntzak eta ardiak,  
nereak dire guziak.

Bere onek ba ditu beste poesi onesgarri zenbait; nik dakizkidanetan *Aingeru bati* ederrentsuna, begirapenaz eta maitez ihizatua.

## Salaberri

*Solferino'ko itsua* (1864)\*. Oso osorik aldatuko dizut ezpaituzu aurki ezagutuko, Solferino'ko gudu-jasan begietako argia galdu zuen Salaberri aren neurtitzaldi txoragarria. Ortatik igarriko diozu itsu onek poeta izenik merezi ote duen, eta euskeraz zerbait barnerik eta samurrik adiarazi ote diteken.

Harmen<sup>12</sup> hartzera deitu ninduen gazterik zorte etsaiak  
Urrundu nintzen, herri alderat itzuliz usu<sup>13</sup> begiak,  
itzuliz usu begiak.

Zorigaitzean baitut ikusi Solferino'ko hegia  
alferretan dut geroztik deitzen iguzkiaren argia,  
iguzkiaren argia.

Nihoiz enetzat ez da jaikiren goizeko argi ederra,  
Zeru-gainetik nihoiz enetzat dirdiraturen izarra,  
dirdiraturen izarra.

---

\* Prestatzailearen oharra: Geroztik, Piarres Lafittek eta beste hainbat tek olerki hau J.B. Elizanbururi egozten diote.

<sup>12</sup> Armak

<sup>13</sup> Usu = askotan

Bethiko gaua, ¡gau lazarria!, begietara zait jausi,  
ene herria, ene lagunak nihoiz ez behar ikusi...  
nihoiz ez behar ikusi.

Ene amaren begi samurrak bethiko zaizkit estali,  
maiteñoen begithartea behin bethiko itzali,  
behin bethiko itzali.

Ez aipha niri landa hegitan sortzen den lili ederra;  
othoi, ez aipha ur-axalean arinik doan ainhara,  
arinik doan ainhara.

Larrainetako haritz gaztaina, mendietako ithurri,  
oriek oro enetzat dire amets histu bat iduri,  
amets histu bat iduri<sup>14</sup>.

Herriko bestan gazte-lagunak kantuz plazara doazi,  
eta ni beltzik etxe-zokoan irri egiten ahantzi,  
irri egiten ahantzi.

Oraino gazte, gogoz ez hoztu, eta biziak lotsatzen?  
Dohakabea! Zer eginen dut Juanak ez banau laguntzen,  
Juanak ez banau laguntzen!

Ai aski hola! Jainkoa barka! Begira zure haurrari;  
kontsolamendu zerbait emozu; noizbait duzun urrikari,  
noizbait duzun urrikari.

## **Etxaon**

Ondikoz!, ez dut eskuetara Etxaon, Euskalerriko  
Verlaine delakoa, ta ez dezazuket ezer esan. Aski esan ez  
ba dizut, orizu bein geiago: euskaldunak arlote izan zire-  
la idazteko; gu arloteago irakurtzeko edo beintzat berriro  
aien idaztiak argitaratzeko.

---

<sup>14</sup> Amets igatu bat bezala

## Artxu, Goietxe, Otxobi

*Alegiak edo fableak.* Leenbiziko biek Lafontaine ta Samaniego artu zituten euskeraratzeko; irugarrenak bere buruz ere asmatu ditu. Artxu erderari lotuegia bere itzulpenetan; Goietxe eskukoago duzu. Bien-ala-biek esan dudana ez biziki aipagarriak. Otxobi'k aldiz, alegi arinak, arraiak, maitagarriak atera ditu. Neurtitza leguna du aingirea antzo, zailua basauntzaren gisa, mintxoia musika bezala, Xubero'ko dantzariak bezain jauzilaria ta biguina. Irakur *Bi garratoinak* esaterako. Ez dizut esanen Esopo denik burutapenez, ez itz beteaz eta laburrez alegietan. Biziki erraz da neurtitzetan ari izan ezkeroz alfer-itzen bat jarriotzea –Esopok etzuen neke onenik izan, ez paitzituen neurri– ta bein edo bein edatuxego ari duzu gure Moulier; baino ez duzu berritxua, ez burugabea. Oraindainoko alegi-idazleak goitu dituela nago.

## Adema Zaldubi

1907'garrenean aldegin dugu mundu ontatik euskaldun begi begiko au. Ezinutzia da naski poetaetan (sic), eta Lafontaine euskalduna izendatua; baino edozein ari-tarako ere biguina duzu: irakasteko, beroarazteko, irri eginarazteko.

Lau zatitara ditezke aren poesiak: Katiximako kantak; Eliz-kantak; alegiak; beste gisako poesi batzuk. Euskera garbia dizu, yayoa, erraxa, bakuna, funtsezkoa edo itz alferrik gabea, leguna, erritarra. Gogoetarik goraenak eta biotzaldirik bizkorrenak gisaz agertzen ditu. Aindiko Euskalerrri osoan kantatzen ditute Zaldubi'ren kanta batzu-batzuk. Neurtitz ederretan adiarazten zituen erlisionekeo egiak eta nahikariak. Euskaldunik beroenetakoa,

gure oikuntzen eta mintzoaren aldezkari goria: “mintza gaitezen eskuaraz; iskriba dezagun eskuaraz”.

Badakit idatzi zuela gainera itz-neurketaz edo bertsoetaz, Eliz-himnoen neurriarekin euskal neurtitzena bekaldetzen zuela. Berak agitz yaioki egoki zuen Asklepiade-neurtitza gure izkuntzara. Ikus *Jesusen azken-afaria*.

## IX. Larramendi ta beretarrak

### 1. Eliz-idazleak

#### *Larramendi*

Gogora beza irakurleak sarreran esan duguna: Larramendi euskal-idazle ez ta idazarazle dela. Ederrago ba derizkiozu, Mariana ta Mayans eta Ebro'z aindiko erdaldunak eragin zioten euskera erdi-galduari. Izkera “totela ta lazkarra” ginuela; erderatik artu ginuela geren izkuntza, gure jabetasunaren ardiesteko; erri asto bat ginela, “asna nación”, eta olako astakeri oriek esnarazi zuten euskera. Mingarria da Larramendi'k euskeraz geiago ez idatzi izaita. Argitaratzeko neke aundia zela dio garai artan, eta ala izan bear zuen ere. Erderaz iarduki zuena euskeraz iardukitzen alegin balu J. Etxeberri'k bezala, euskerak indar aundiagoa artuko zuen bear ba da. Bear ba da diot, alegia, idatzi ta ere ezpaitzuten irakurriko erdaldunak gure izkeraren alde esaten zuena, ta ez euskaldunak ere: orain bertan ere neke baita irakurtzea.

Larramendi'k Aita Mendiburu'ri *Jesusen Biotzaren debozioa* euskera ederrean idatzi zuelako, gutun sutsu bat egin zion, gero itzaurretako argitara zutena. Orixta bat



edo beste xurixtatzen ba dizkiogu, gaur den egunerako ere ez du lotsarik “Garagorri” edo Larramendi’ren euskerak. Ona zer diotson Aita Mendiburu’ri:

“Beste batzuek dituzu gure Euskeran nai ez lukeenak beste izkondeetatik iztxo bat ere; eta onen bidez epaitzen eta ziatzen bezela dira jolasean. Bestelako ergelkeria! Etzaitzela zu malmeti. Euskerari eransi zaizka gaztelaniatik, latiñetik, edo beste izkondeetatik itz asko, baño adituaz ta oituaz, euskerazkoak beziñ ongi aditzen diranak; eta oiek utzi bear eztitugu, ta bear ba da noiz edo berriz obeko da onelakoak usatzea euskerazkoak baño, batez ere Eliz-gauzetan ta gure animen salbazioari dagozten egikarietan. Lajatuko ditugu erbesteko itz oriek, nai badegu, gure euskerarenak pixkabana usatuaz ta erabiliat, eskukoi ta jakiñak egingo diranean. Ongi egin dezu Naparroako itzen batzuek ekartzea, egokiak diranean, eta besterik eztanen; zeren lenbizian ta batbatetan aditzen ezpadira ere, aurki adituko dira ta geienak dagoneko aditzen ere ba dira; ta ala euskera bide batez edertzen ta ugaritzen da”.

San Agustiñen goraipamena ez dakit ezagutzen ote duzun. Goxo ez ezen zorrotz ere ari da Larramendi mintzaldi artan, “*ens ut scio*” eta beste filosofietarako euskera gai dela erakutsiz. Idaztankeraz ezpada ere, bere eragitez, eta bere Gramatika’rekin eta lztegia’rekin Irakasle ta buru izan da Larramendi oraintsuraino.

## *Mendiburu*

Euskal-idazlerik oberena au uste dute zenbaitek eta Cicero euskalduna izena ipini diote. Axular’en ondoondoan beintzat tokia merezi du. Euskera garbiagoa du Oyartzuarrak Urdazubiarrak baino; ez orde ugariagoa. *Jesusen Biotzaren debozioa* (1747) Aita Croisset’ek prantsesez egindakotik egoki zigun euskerara; ez itzuli. Au da

Mendiburu'ren libururik bikainena idaztankeraz eta euskalkiz. Eman zizkigun gainera beste iru liburutan *Otoizgaiak* (1759) ikaskizunez eta azkuz beteagoak. Orkaiztegi zenari esker, gaur irakurri dezazkegu euskaldunak erraz. *Irakurgaiak*, bi liburu, oraindio argitara gabe daude, ondikoz! Euskeraren garbitzen orainotsu ez da Mendiburu'k adina alegin duenik. Urrena, biotzez ari da, ta maitagari agertzen du bere burua; Jainkotiarra ta sutsua, duzu; idaztankera berdin-antza du beti. Irakurgai orien begira gaude; eztakigu noiz argitarako diren.

### *Kardaberaz*

Euskera ez du garbia, erderakeri asko, ta idaztanke-  
ra ez euskaldunak geienaz. Oso gizon Jainkotia zen eta Santutzat zedukatena. Bere burubide ta burutapenak oso erderaz ernatzen zituen eta euskeraz ezin esan; baino ala ere euskal-idazle gisakoa ziteken euskaldun biziera gai artu balu. Santa Monika'k aurtzaroen izan zuen okerkeritxo bat (edari-zalea), ta baserritar baten eriotza, zer poliki idatzi zituen! *Euskeraren berri onak* irakurri ba dituzu, an daukazu euskaldunki “Andre donostiarraren erretorika” ta “Andre Elorriarraren erretorika”. Gainerakoz zeru-gaietan ari izan zen, eta Euskalerra'n onik ugari egin ere bai, jende xumeari ez ezik apaizai ere, euskeraz bear bezala ari zitezela esanaz. “Sazerdote Jaunen Ministerio Sagraduetan euskeraz baizik emen egin ta esan bear ez dala. Ta lengo aitzakiarik orain edolarik ez dute askok: bada Aita Manuel Larramendi'k neke gogor ta estudio esan al baño aundiagorekin, ezin izango ta ezin egingo zan bere *Arte*'a egiñik, eziñak eta nekeak lazki garaitu zituen, ta ori ta bere *Iztegi* edo Diccionarioa Maisuak bezela eman dizkigu”. Liburu asko eman zizkigun Kardaberaz'ek: politena aurki *Euskeraren berri onak*, eta *Ondo eskribitzeko ondo irakurtzeko ta ondo itzegiteko Erre-*

*glak, Cura Jaun eta eskola-maisu zelosoai. Asteteren Do-  
triña (1760?); Kristauaren bizitza (1744; bir. 1790); Eus-  
keraren berri onak (1761); Ejerzizioak (1761; bir. 1790);  
Aita San Inãzioren bizitza (1790; bir, 1824); Ondo iltzen  
ikasteko (1762; bir 1765; irur 1787; laur 18 16); Jesus  
Maria ta Joseren debozioa (1766); San Isidro ta bere emaz-  
te Santua (1766; bir 1885); Meza eta Comunioa (1782),  
lauretan argitaratua; Eskuliburua (1889); Ama Josefaren  
bizitza (1882) eta beste apurren batzuk. Ejerzizioen biga-  
rren parte (1865); irugarren parte (1761); laugarren  
parte (1765). Geienak agortuak bide dira.*

### *Añibarro*

*Añibarro ta Zarauz'ko Prantziskotarrak. Zarautz'en  
badugu Komentu bat Euskalerrria'ren eta euskeraren alde  
lan poliki egin diguna. Añibarro ta Ubillos ta Zabala  
daduzkat orain gogoan. Añibarro bizkaitarra, Arratiarra  
izanik, beste euskalkiak ikasten ere alegina egin zuen.  
Laphurdi'ko euskeratik Bizka'i'kora aldatu zigun Axu-  
lar'en Gero, ta bere Iztegitxo antolatu ere bai, argitara  
ikusi ezpadugu ere. Esku-liburua du idaztankeraz balio-  
tsuenik (1802); euskera ere garbia, landua, ugaria. Eus-  
kal-eliz-liburuetan bai politentsuna, txiki samarra dena.  
Lora-sorta aldiz, ez dirudi batena; erdalkeriz josirik dago.  
Bi liburutxo oriek erderatik artuak dire: lenbizikoa Pina-  
monti'rengandik eta bigarrena Aita Palacios'engandik.*

### *Agirre ta Bartolome*

*Agirre'ren Erakusaldiak eta Bartolome'ren Ikaskizu-  
nak. Asteasu'ko Erretore Juan B. Agirre'k anima gauzetan  
ederki ari izan zuen euskera. Moral-gaia oso osorik lati-  
ñetik euskerara zuen eta Eliz-gauzetan beretan ere euske-  
raren landa zabaldu zigun. Idaztankera argia, izkera erraza,*

garbia, irakurriago ta maitagarriago dena. Euskeraz ere ikasia zen eta laphurtarren jario apurra ba duela emaiten du: argitasunez beintzat bai.

Onekin bereiz ipini bear dugu Santa Teresa'ren Aita Bartolome, Markiña'ko Karmeldarra, gai onetan berean ari izana, ez Agirre bezain edatuki, bai orde sakonago ta beroago. Idaztankera ez du Agirre'k bezain jasoa ta txukuna, baino indartsuagoa ta etorritsugoa. Euskera baldanagoa du bai, baino gaur bertan ere onturrez irakurri ditekete. Agirre'ren iru liburu gizenak ez dabilta edozeinen eskuetan eta euskaldunak eztaikit bear adina ezagutzen dituten. Bartolome ere aditzeaz bakarraz idukiko dute batzuren batzuk gogoan.

### *Lardizabal*

*Testamentu zarreko ta berriko Kondaira*, nork eztu eza-gutzen? nork eztu irakurri bein baino geiagotan? Bibliaren laburpen polita egin zigun euskera eder, garbi, ugari askian. Gipuzkoa'n noizbait ere maiz irakurtzen zen. Orain eztaikit ainbeste. Gramatika-lanetan ere jakintsua zen.

### *Arrue*

Langile bikaina bide zen, ogeitamar urtez euskera-lanetan. Asko ta ederki idatzi edo euskeratu zuen Mazo'ren dotriña euskeraz (1858); *Esku-liburua* (1863); *S. Inazio-ren bizitza* (1866); *Santa Genoveva'ren bizitza* (1868); *Villacastin'en Meditazioak* (1880); *Mariaren Gloriak* (1881); *Salbazioko aingura* (1883); *San Alfonso'ren bisitak* (1887); *Maiatzeko illa* (1888); *Beargillearen argia* (1897). Baino nere ustez *Jesukristoren imitazioa* du libururik onuratsuen euskerarentzat. Gaur bertan ere, errirako beintzat ez dut uste oberik denik. ¡Agortua da zorigaitzez!

## *Beste eliz-idazle batzuk*

Luzatu eginen nitzake ain kanorezko eztiren idazleetaz bakoizka ari bear banu. Ubillos, Mogel, Astarloa, Otxoa Arin, Etxeberria ta abar, ez dire ain aipagarri gure Eliz-literaturan. Laphurdi'n ere asko utzi ditugu, ta ez al dire muturtuko Bidasoa'z oneindikoak, edesti labur batean bakoitzari leku aisen emaiten ezpadiogu.

## 2. Mogel ta Iztueta

### *Mogel*

Bizkaia'n ez ezik Euskalerrria'n argitara den libururik ederrenetakoa da *Peru Abarka* (1881). Euskal-biziera gai artu zuen, eta orregatik zaigu zalegarriago. Peru nekazari, eskolagabea, euskeraz besterik eztakiena, Maisu Juan sendagilearekin ariarazten du. Peru ederki bezain Maisu Juan gaizki mintzatzen da. Gure Basarteko Irakasleak erakusten dizkio Maisu Juan'i ta guri ola, errota, eundegi, ardandegi ta gainerako lantegietan eta bildegietan diren gauzak eta itzak. Esaera, oikuntza, neurtitz, atsotitz eta olakoak edertzen dute liburu au. Atzenean eratziki ditu latiñeko itzulpen batzuk: Curtius, Salustius. T. Livius, Cicero, ez ditu oso motel ari euskeraz. Izkera apaina, bizia, etorria, ugaria ta egokia du.

### *Iztueta*

*Gipuzkoako dantzak* ainbesteko balioa ba dute (1824) alegin edo oldar bizkorra adiarazten baitute euskera jakin-gaietara ere edatzeko. Etxeberri'ren urrena ez du gutxi egin Iztueta'k. Dantza orien antz-egitea edo deskriptioa ez da gauza erreza, ta argatik euskera gogor-antza du

batzu-batzutan; berak asmatu-itzak ere bai usu-samar; bai aspaldi-itzak ere, Axular eta beste euskaldunengandik artuak. *Gipuzkoako Kondaira* ( 1847), bere zartzaroan egina, idaztanceraz ixurberagoa da ta apain askia. Au ere jakin-gaietaz den ezkeroz, gogoangarria da euskal-literaturan, eta gai ontan aurren-lana, nik dakidanaz. Itz eta esaera ugari bildu ditezke an emen. Euskalerrria barne-barnetik maite zuela ikusi dezazuke. Biotzaldi beroekiko gizona, irakurlea ere beroazten duena da. Irurogeita emezortzi urte zituen azken-lan ontan ari zelaririk; baino biotza gazte zedukan ala ere. Euskalerrria'k bere mendi, ibia, zuaitz, iturri, eize, arrain eta abar-ekin: Euskaldunak bere erlijio, oikuntza, lan, josteta, gizon gogoangarrien egite ospetsuekin, gai zabala eman zioten.

### 3. Lore-jokuak

#### *Euskal-Erria*

1879'garreanean euskaldun bero Manterola'k irasi zuen Revista *Euskal-Erria* ta bitartean (1877-1880) argitara ere zuen Euskal-kantutegia edo *Cancionero Vasco*. Euskalerrria'k ez dio gutxi zor, euskera biztarazi naiean alegina egin zuelako. Lentxeago D'Abbadie'k asi izan zituen Lore-jokuak Prantziko Euskalerrri'rako ta gurera-ko. An-emenka ziren poetatxoak biltzen ziren Sara'ko, Markiña'ko edo beste euskal-jaietako batzaldi edo *concurso*-etara, eta euskera biztuxe zela emaiten zuen. *Euskal-Erria* delako Revista'n ere ari ziren itz neurrigabeetan naiz neurtuetan gizonik ikasienak. Carlsten guduak ere Fuero'enganako maitea irazeki zigun eta literaturan ixuri aundirik utzi ezpazuen ere, Iparragirre tarte orretatik atera da. Arrese ta Beitia ere ez dugu euskaldun Fuero'tar epela. Ainikere, beste zenbait garaitan aski ziteken oldarra edo

indarraldi au, biztu-nai au, etzen bear bezain bizkorra. Etsai gogorra zuen eta oraingo birbizteak ere ori bera du: ondoko erdera agitz landuen mendea.

#### 4. Bidasoaz emendiko poetak

##### *Iztueta*

Neurtitzetan ere ari izan zen Iztueta. Garai artan eta aurretik ere ez da ageri Gipuzkoa'n biotzez ua adinekorik Bilintx'en egunetaraino. Gure poeten neurtitzak or dabilta birri-barra niora bildu gabe, ta ez da errez edozeinek irakurri zaitea. Iztueta'renik *Kontzezi'ri* egin ziona bederen ezagutzen bide duzu: "*Maite bat maitatzen det maitagarria*". Biozmin barnea du bere emazte-gaiari egindako poesi onetan. Poeta gaia zen inolaz ere Iztueta, bere burua lantzeko bidea izan balu.

##### *Iparragirre*

Ezer gutxi balio dute gure kantari onen poesiak: oso landugabea da poesian beintzat. *Ume eder bat* eta *Nere etorrera lur maitera*, ainbestekoak dire, baino neurtitz utsaltxo eta baldanetan eginak. *Gernika'ko Arbola* aipatua ere poesiz erantzia dago. Alare euskaldun biotzetan zirra-ra emaiten du, gure Fueroen alde ari delako:

Gerrarik nai ez degu,  
pakea betiko,  
gure lege zuzenak  
emen maitatzeko.

Orregatik euskaldun biotzari eragin zion. Bere erria maite zuen eta aldegin-bear beltza izaki: "geiago ez etor-

tzeko Probintzi onetara”, agindu baitzioten. Erri-zale izaita bearrik! Onetan asmatu zuen; bestela deus etzuen balioko Iparragirre’k.

### *Bilintx*

Bizkarrondo gizagajoa ainbeste ezbearren artean azia, biotzondo utsa zirudien. Aren neurtitzak muina ba dute geienaz. Samurra ta negarti-antza da, bere bizierari darraikola. Izkuntza txukuna ta biguina du. “Euskal-poe-tetan samurrena ta bioztunena” zerizkion Manterola’ri. Erdaldun poeta batzuk maiz irakurri arren, landugabe-txoa zen au ere. Bere gisa ari izan zen poesian txoria txin-taka bezala. Irakur bitez *Izazu nizaz kupira* eta *Kontzeriri*.

### *Arzak*

Berak besteri bezala, “On” Antonio Arzak izena emainen diogu. Poeta urrixa edo emekia, bera gizaki izai-teko. Izena bederik merezi du edesti labur onetan.

### *Arrese ta Beitia*

Au dugu euskaldun poetarik bizkorrena: erritarra, erritik ateria. Irakurtzen ere ez dakiten ardandegiko ber-tolariek baino ikasiagoa, ta alaere ez landua. Nork ez daki buruz eta nork irakurri ez du biozminarekin *Ama Euskeriari azken-agurrak?* “Xamurtasun goxoa, negar-min barnea, iduripen aundikorak, Jeremias’en eiagorak eta Shakespeare’n aienak berekin ditu, Euskalerra’n berdi-nik ez duen eresi onek” (Campión).

Nun dira bada zure semiak,  
Foru ta euskerazaliak?...

(...)



Umezurtz batzuk gelditu gara  
bilosik Foru-gabiak.

(...)

Zorioneko arkaitzak eta  
zorioneko mendiak,  
orain artian zuek izan zare  
Foruen gordelariak.

(...)

Geiegi da ta, ausi arkaitzak,  
onegi ez izan, mendiak,  
lurpetuteko, Euskera il ta,  
bere ondasun biziak.  
Bera tontorrek, bete arruak,  
erdu Gaztel-lau igarrrak,  
agortu errekak, lurtu itxasuak,  
agur euskeldun ibarrak!

“Euskerak adina iraunen dire Arrese’ren euskal-kan-  
tak”, C. Etxegarai’k zionez, eta bere onen aburuz, “eus-  
kaldunago ta poeta bioztunago da Arrese”. Landu-itxura  
artu nai duenero, ordea, ez du lurraren azal-gainetik  
aldegiten.

### *Karmelo Etxegarai*

Markiña’ko euskal-jaietan oraino ume zelarik sariz-  
tatu zutenean itxaropen zuten euskal-poeta bikaina ate-  
rako zela Etxegarai. Gaiekoa zen poesirako, bere gainera-  
ko idaztietan noizpenka nabari danez. Gaia egokitzen ba  
zekien, izkuntza berez etorritsua zizun, esaera txukuna,  
neurtitza erreza eta ongi ebakia. Zergatik utzi zion poesi-  
giteari? Eztakigu. Mingarri da bere bizieran geiago ez ari  
izaitea (Ikus: J. M. de Estefania S. J., *Euskalerraren Alde*,  
1926, 129 sp.).

## 5. Alegi edo ipuinak

### *Iturriaga*

Samaniego'ren eta besteren alegiak euskerara zituen gatzik askirekin. Ez dirudite ilzuliak, euskeran sortuak baino: euskerara ain egokiak daude gure baserritarrentzat. Gizon ikasia ta jakintsu askia zen, eta alegien eta gainerako poesien itzulketan ez dugu Iturriaga adinekorik. Virgilio'ren Egloga'k ere, izketa biurritu gabe, etorkitsu euskeraratu dizkigu. Irakur bedi batez ere *Palemon*, eta ikus gure bertsolarien izketa nola eraiki digun, eta Virgilio'ren poesia nola erriratu digun. Bein eta berriz irakurri diteke Iturriaga aspertu gabe. Nere ustez Adema Zaldubi'rekin ez da naski euskera bertsoetan ainbeste landu duenik.

### *Azkue (E. M.)*

Erri-poeta bikaina baginuela esan zuen A. Uriarle'k Azkue (Eusebio Maria) irakurtzean. Euskal oiturak gai artzen ditu askotan: "*Mundaka'ko arrain saltzalia*", "*Bermeo'ko astodunai*", "*Mundaka'ko emakumia*", "*Baserritarren jai Domeketako batzarrak*" eta a. Baditu ipuinak, eztenkadak edo satirak eta ziri-bertso edo epigramak ere. Gogoaldi edo tankera ona ta buru-adi zorrotza, darakustza agiz. *Dies irae* latinetik ederki euskerara zigun. Gai anitzetan oitu zen eta "denetan antzetsu zela aditzera eman zigun" (Uriarte'k).

### *Aita Zabala*

Orainotsu ez ginuen ezagutzen. Azkue R. M. jaunak 1904'garrenean Paris'en ediren, eta Urkijo jaunak argitara digu R.I.E.V.'ean. Alare bakan irakurriko zuten eus-

kaldunak, Revista ori gutxirengana irixten baita. Zabala'ren ipuinak ere argitarazlearen begira daude. Euskera eder-ederra du, garbi-garbia; baino gatza gutxitxo ipuinetan, Eguzkitza jaunak dionaz (*Lenengo Euskalegune-tako itzaldiak*, 29'g. orriald.): “Geure artean askok erabili daben euskera mordoilo, loi, ezain, itxusi ta lotsagarria gomutau ezkeru, Zabala'ren ipuin oneik euskera garbi ta ederrean dagozala esan daikegu” (Ibid. 28).

Esopo'ren ipuinak Vicenta Mogel'ek ez ezik, gure egunetantsu gerkeratik ederki euskerara dizkugu Apaiza Jaun Nikasio Larrea'k. Bildurik baleude!

## X. Gure mendea: Arana ta ingurukoak

todas despacio para salvar esas pocas reliquias del monumento arqueológico por excelencia, que debemos estimar sobre todo otro monumento. Cuanto más que en el mismísimo Cardaberaz, que es el que más desmerece en el léxico vasco, se hallan no pocas palabras preciosas, aun después de leído Mendiburu.

La influencia directa o indirecta de las obras de esos autores en el pueblo guipuzcoano no ha sido nula. No ya el devocionario manual de Cardaberaz, que aún hoy se lee; ni sólo la historia del Antiguo y Nuevo Testamento de Lardizábal, muy leído en Guipúzcoa, o más modernamente los libros de Arrúe, sino también los tres grandes volúmenes de Aguirre, escritos para auxilio de los sacerdotes en su sagrado ministerio han trascendido al pueblo allí donde los han leído desde el púlpito. A persona entendida he oído atribuir el hermoso lenguaje que se emplea en Asteasu a las pláticas de Aguirre, que fue rector de aquel pueblo. Cierta distinción en el hablar de los guipuzcoanos de alguna zona ¿no podrá explicarse en parte por la lectura de los libros?

¿Cuánto no se ha leído, por ejemplo, en las familias piadosas la novelesca vida de Santa Genoveva de Brabante o la historia sagrada de Lardizábal?

El vascófilo que no ha leído esas obras no merece el nombre de tal, y no es pedirle mucho, ya que dicen que es casi nula nuestra literatura. Lea a Aguirre y verá que contiene un curso completo de moral y de doctrina cristiana, explicado en lenguaje asequible y escogido, y aun tropezará con más de una palabra que no se halla registrada en el gran Diccionario de Azcue; lea al cuidadoso, estudioso y amable Lardizábal, y en medio de su estilo, algo atado y regular en demasía, encontrará qué aprender para sus estudios gramaticales; no deje de recorrer, pluma en mano, todas las páginas de Cardaberaz, porque más de una preciosidad que en ellas encontrará adquiere



doble autoridad, ya que este autor no fue ningún raro coleccionador de vocablos o frases. El mismo Iztueta, insostenible neologista a veces, contiene muchos vocablos legítimos que conviene cuidadosamente entresacar, y que algunos de ellos se comprueban ser verdaderos por Axular y otros autores antiguos. Finalmente, entre las obras del laborioso Arrúe, le recomiendo especialmente su *Kempis*, que ojalá hubiera sido más leído, y del cual hoy, por desgracia, no se puede adquirir ningún ejemplar.

(*Euzkadi*, 1924-08-12)

## 7. Larramendi

¿Será pecado en nuestros días ocuparse de uno de los vascólogos que más desprecio inspiran a los “sabios” actuales, del soñador de cómodas etimologías, Larramendi? Dejada aparte esta mala nota, de la que no le vindicamos, no podemos menos de apreciarle en su justo valor como apologista del euskera contra sus denigrantes como gramático y como excitador de escritores.

Si consultamos la historia de aquel tiempo veremos, que a ninguno, hasta hoy debe tanto el estudio “práctico” del euskera como a Larramendi, a no ser aquella falange de denigrantes de allende el Ebro, que motivaron la reacción en pro de nuestro idioma. La atrevida frase del indocumentado Mariana se volvió a repetir bajo diversas formas corregida y aumentada. La ligereza de Mayans y Siscar, y la audacia de lo “diaristas, a quienes nunca olvida ni perdona en su apología, la caricia de aquel “discretísimo” cortesano, que nos bautizó a los vascos con el decoroso título de “asna nación” (XIVIII), y la indiferencia y el descuido de los propios vascos, fueron los que estimularon al profesor de Teología de la Universidad de Salamanca a salir a la defensa de su idioma nativo.

Larramendi fue el que incitó a los notables misioneros Cardaberaz y Mendiburu a que escribieran sus libros, y esta es acaso su obra más práctica. A Larramendi siguieron una serie de escritores vascos prácticos y teóricos, aunque extraviados o indocumentados, que recordaban con estima y cariño a su maestro, y, por lo menos, tuvieron la virtud de excitar a otros hacia los estudios vascos.

No exigimos a los sabios vascólogos que lean todos los escritos de Larramendi; sólo nos contentaríamos con que leyesen el prólogo al *Diccionario* bien leído –203 páginas, en folio–, que, al cabo de leído, si tuvieran aguante para tanto, se convencerían de que en sintaxis general, por ejemplo, no se ha dado desde aquellos tiempos un paso que merezca llamarse importante. La obra de Larramendi, en conjunto, es, cuando menos, un esfuerzo gigantesco que debemos agradecer.

Se engañaría quien pensara que Larramendi creía en la verdad incontestable de sus etimologías. Varias veces insinúa al principio de que aquí no tienen lugar los argumentos metafísicos, y lo mismo en esto como en las pruebas de la antigüedad y universalidad del vascuence, se queja de los “críticos que exigen certidumbres metafísicas, cuando en otras cosas se satisfacen de apariencias remotísimas”.

Ahora, que le sucede exactamente lo que a los actuales etimologistas; que se olvida del principio sentado, se encariña con su invento, y no se le puede decir lo contrario. En vista de las acres censuras del bando contrario es muy explicable y disimulable el exceso a que llega en la argumentación, sobre todo contra el erudito humanista Mayans, a quien en alguna ocasión enmienda la plana aun en castellano.

Vamos a demostrar con un precioso ejemplo la hermosa concepción que Larramendi tenía de la sintaxis:

“Yo comparo las lenguas –dice– al hombre que tiene cuerpo y alma; su cuerpo es el conjunto de voces, y su

alma es la sintaxis y armonía, que da el ser a aquel cuerpo” (CXLVIII).

Pero veamos la ingeniosa derivación de este principio vulgar no desconocido entonces. Refutando a Mayans, aplica al idioma así concebido la ley biológica del cambio de la materia en el organismo: ”... no es preciso, que sean unas partes de materia las que informen el alma, sino que pueden ser distintas más o menos y sucederse unas a otras. Una lengua viva es determinadamente tal por su forma determinada; esto es, por su arte, construcción y armonía... De manera que para que el vascuence sea determinadamente tal lengua es preciso que sea una misma su forma: esto es, su arte, coordinación y armonía; pero no es preciso que sean unas mismas las voces; y teniendo una vez el vascuence las voces bastantes para ejercitar su arte, construcción y armonía, puede adquirir otras, y perdiendo las primeras, mantener su inmutable armonía” (CLXXIV).

¿Esto lo dice Larramendi? El mismo es quien lo dice, y dice otras cosas muy útiles que acaso ignoren algunos vascólogos.

*(Euzkadi, 1924-08-20)*

## 8. Iztueta

### *Historia de Guipúzcoa*

El autor de las danzas de Guipúzcoa nos dejó otra obra más voluminosa, de más extensión y variedad de conocimientos, y lingüística y estilísticamente más apreciable. Es la *Historia de Guipúzcoa* que abarca un tomo en 519 páginas. Como historia general, que no entra en disertaciones y disquisiciones críticas, tiene razonable extensión, y es un esfuerzo para aquellos tiempos, siendo además de notar que es lo primero que conocemos escrito en nuestra lengua. Por sólo este concepto, la obra es de relativo mérito, escrita con más soltura y elegancia que las danzas, y en que el euskaldun de nuestros días puede aprender no pocas palabras y giros.

Se resiente Iztueta, de la ampulosidad y mal gusto corriente de los autores castellanos que leyó; pero su palabra está caldeada en el amor al país, y siempre se insinúa suavemente en el lector el alma lírica de Iztueta. El vocabulario, aun podados los neologismos de que otra vez hablamos, es bastante más copioso que el de los demás autores vascos en general. La amplitud de la materia se lo permitía, es verdad, pero el cuidado que observa

en la elección de palabras vascas no era patrimonio de nuestros escritores de aquellos tiempos.

“Hablaré –dice– ante todo de los orígenes de Guipúzcoa y de su lengua; en segundo lugar, de sus tierras, montes vegetales, canteras, minas, fuentes, ríos, arbolarado, cosechas, animales, aves, peces y otras cosas memorables: después pasaré a hablar de la religión, aficiones, labores, juegos y costumbres: de las grandes hazañas que realizaron nuestros antepasados nombrando, en particular, a los más insignes”.

Tiene, pues, aquí el euskera notable campo de ejercicio.

“Setenta y ocho años tengo –dice–, y debiera dejar a un lado los trabajos intelectuales, ignorante como soy e iletrado; pero al ver que no se han declarado en nuestra lengua las glorias y derechos que tiene Guipúzcoa, el amor vivísimo que siento hacia ellos me ha impulsado a emprender esta obra sobre mis fuerzas”.

Son también dignas de notarse estas otras palabras del prólogo:

“Todos los nobles habitantes de Guipúzcoa saben perfectamente que su bienestar les viene de los benditos Fueros nativos; pero muy pocos saben lo que es preciso para conservarlos cuidadosamente. El apoyo más firme y el mejor sostén de nuestros Fueros es el euskera bien guardado, porque estas dos cosas están tan unidas, que no se pueden separar. Si muere el euskera, los Fueros no vivirán; pero si el euskera vive, revivirán. El que desee los Fueros debe amar el euskera, y el que ama el euskera debe explicárselos en euskera a los vascos con todo lo que a ellos se refiere”.

Al tratar de los orígenes de la lengua, discute y se esfuerza en explicar los nombres de las regiones más antiguas del globo, descifrándolos, como estaba de moda, por el euskera. Estos y otros defectos científicos de su

obra no los podremos disimular; pero siempre agradeceremos a Iztueta el esfuerzo y el éxito en materia nueva. El fuego apologético que excitaron en él con sus censuras a nuestro idioma los Mariana, Armesto, Osorio, Nicolás, Antoni, Martí, Velázquez, Ledesma, Traggia, invade muchas de sus páginas, que si no son modelos de belleza, son estimables y provechosos para el vasco que las lea.

La naturaleza no le dotó del ingenio del zumbón Larramendi, pero le dio la facultad de sentir y de hacer sentir.

*(Euzkadi, 1924-09-12)*

## 9. El Padre Yoanategui (Yoannateguy)

La literatura piadosa labortana es, sin disputa, lo mejor y más abundante que poseemos desde los tiempos de Axular hasta el año 1900. A ello han contribuido, además de la superioridad del dialecto —perdonen los que piensan lo contrario— la mayor ilustración de sus autores, entre los que se cuentan no sólo sacerdotes y canónigos, sino también médicos, abogados, capitanes, ya prosistas, ya poetas, y cierta tradición literaria de que en casi todos los demás dialectos carecemos.

Sin hablar de los apreciables traductores de los libros santos, pudiéramos mencionar nombres dignos de figurar entre los mejores escritores vascos. En vano buscaremos en autores de otros dialectos la suma claridad, la suavidad y la gracia que son los tres caracteres distintivos de los labortanos, de lo cual ellos se glorían, y que se hermanan admirablemente en el autor que va a ser objeto de estas líneas.

No por antigüedad, pues alcanza la fecha del renacimiento, sino por el mérito debemos mencionar al benedictino Padre Yoanátegui, muerto hace pocos años. Casi puede entrar entre los autores últimos, como hombre estudioso de la lengua: pero está libre de lo sospechoso de algunos de ellos. Fue trabajador más bien aislado, de cri-



terio netamente popular, sin dejar de ser muy esmerado, no influido en su obra por tendencias avanzadas, como han sido influidos en general los de allende el Pirineo. Su concienzuda labor de benedictino ha sabido elaborar el panal más sabroso para el amante del euskera.

La principal obra del P. Yoanátegui son los dos tomos de vidas de Santos publicados el uno en 1800 y el otro en 1900. Anteriormente había publicado la vida de su Padre San Benito, y otro tomo de vidas de Santos; pero no los hemos podido adquirir como ni se puede adquirir ya el primero de los dos tomos citados, por haberse agotado. De la reedición y de la conclusión de la obra que nos prometió —pues sólo llega en el santoral al mes de junio— ignoramos aún los que hemos seguido con interés a los autores de allende el Pirineo. No dudamos que aun entre los vascólogos habrá más de uno que ignore hasta el nombre de este escritor. ¡Qué fatalidad! Los vascos tenemos reducida literatura; pero lo más grave es que aun ella la desconocemos y, por consiguiente, no la estudiamos.

Los dos tomos aludidos parecen ser lo mejor que ha salido de su pluma. Véase el criterio que presidió en su composición y los elementos de que el buen Padre disponía. “He compuesto —dice— otro libro completamente nuevo, y a mi parecer, en vascuence más asequible que el que he usado antes. Para esto he recorrido el país y me he dado cuenta de cómo habláis vosotros, los hijos del pueblo, sin dejar de leer los libros más renombrados por su vascuence. Creo haberme expresado como uno de vosotros que ignora el francés”.

Tuvo, además, el acierto de no perder de vista a los labriegos, para quienes escribía, cosa más explicable aún en un benedictino, amante de la labranza.

El P. Yoanátegui fue, además, en su juventud Vicario de Sara, pueblo que se precia de hablar mejor que ningún otro el euskera.

Con esto aunque no tuviera otras cualidades sobresalientes su labor, que no discrepa de su criterio, está bien ordenada. El P. Yoanátegui encierra la flor y nata de los escritores labortanos, y para quien esto escribe, sin pretender imponer su juicio, es el autor vasco más completo, aunque entren en la cuenta Axular y Mendiburu. Si acaso el lector sospecha un cariño ciego, sepa que éste ha sido contagioso con una simple recomendación de su lectura. Haga la prueba en sí y verá si puede soltarle de las manos.

Aparte de la pureza y corrección del lenguaje y de la claridad y suavidad del estilo, tiene dos cualidades que agradarán singularmente al purista de nuestros días: sintaxis variadas y abundancia de giros, y uso frecuente del “totano” o de la conjugación familiar. No es el último de los proyectos de quien esto escribe el hacer un estudio detallado de la fraseología de Yoanátegui.

En cuanto a la pureza de lenguaje, es el ideal que podemos proponemos, y a él empiezan a tender algunos en nuestros días, apeándose un tanto de su actitud excesivamente purista. No se den por ofendidos éstos, como ni se feliciten los del bando contrario. El exceso a que en esto se ha llegado con el buen deseo de desterrar el espantoso abandono a que se había llegado en materia de pureza de dicción, no sólo es explicable, sino que ha tenido precedentes en la historia de otros pueblos. Recuérdese a Alemania. Es de esperar que vengamos al justo medio.

*(Euzkadi, 1924-09-23)*

## Hondar hitzak

Nik ondoko lerro hauek ondu nituenean, duela dozena bat urte inguru, artean ez nuen Orixek eta Mixtelenak elkarrekin trukatu zituzten gutunen berri, ez nekien hizkuntzalari handiak zer pentsatzen zuen Orixeren saio horretaz. Orain garbiki ikusten dut zein estimu handitan zeukan eta nire lehengo ustea are sendotuagoa agertzen da.

## Euskal klasikoen garrantzia

Gaurko egunean, Filologia eta Literaturako Fakultateak bideratuak eta euskal klasikoen bilduma nornahiren esku dauden une honetan, alegia, garai batean baino iritzi eginagoa daukagu klasikoek eta herri-euskarak euskal literaturan duten garrantziaz. Eta iturri horien altxorra jasotzeko ere, lehen ez bezala tresnatuak gaude orain. Hor dauzkagu autore klasiko batzuen argitalpenak beren ohar kritikoz ongi hornituak, hiztegiak, testu-azalpenak, etab.

Honekin azaldu nahi dudana da, herri-hizkuntzaren eta autore klasikoen aldeko baino gehiago kontrako giroa nagusitu zen garaian, Orixe aitzindari agertzen zaigula.

Literatura ona egiteko, euskara kultur tresna bihurtzeko, beti oso garbi ikusi izan du herriaren ahotik eta klasikoen liburuetatik asko ikasi beharra dagoela. Azalduta daukadanez, “Erizkizundi irukoitza” egiterakoan, batik bat Bizkaian, herriz herri ibili zen ahozko euskara bizia jasotzen. Luma eta papera eskuan, ofizio horri ez zion sekula etsi, beti baitzegoen adi non zein hitz edo esatera berri entzun, hura jasotzeko. Saiatu zen, arretatsu saiatu ere, herri-euskara ezagutzen eta, gaia egoki zetorkionean, baita erabiltzen ere.

Orobat, euskararen tradizio ahaztuegia berreskuratzeko, autore klasikoak errebindikatu zituen. *Euzkadi* egunkarian kazetaritzan hasi orduko ekin zion euskal klasikoak ezagutzera emateari. Lehen esan bezala, euskal klasikoez hamaika artikulua argitaratu zituen 1924-1925eko epealdi laburrean. Guztiak laburrak bezain zaintsu eta mamitsuak. Artikulu horietan zazpi idazle dakarzkigu bakarka aztertuta: Axular –honi hiru artikulua eskaintzen dizkio–, Mendiburu, Zabala, Joan Antonio Mogel, Larramendi, Iztueta eta Aita Joanategi. Eta tartean, beste hainbeste zeharka aipatuta: Anibarro, Kardaberaz, Agirre Asneasuko erretorea, Gregorio Arrue, Lardizabal, eta beste hainbat. Irakurtzekoa da euskal klasikoei eskaintzen dien “Los clásicos vascos” izeneko artikuluan, horien izenak nola errebindikatzen dituen, zein bikain arrazoituz.

Hastapeneko lan hauen osagarri eta koroa gisa, oraingoan euskaraz, *Euskal-Literatura'ren atze edo edesti laburra* izenez ezagutzen den saio biribilagoa landu zuen, Euskal-Esnalea elkarteak antolatutako sariketan irabazle gertatu zena. Lan hauxe da, guk dakigula, euskal literaturaren lehen historia. Izenburuan datorren bezala, laburra, soilki Eusko Pizkunderaino iristen dena, baina biziki mamitsua.

Zergatik ote Orixeren klasikoengana itzultze hori?, galdegingo zait. Erantzungo nizuke esanez euskara litera-

ria nahiz zientifikoa, autore klasikoen ekarrietan oinarritzeko asmoak daramala orduan eskura zeuden autore klasikoen idazlanak ezagutzera ematera. Edozein ikergaitan iturrietara joan ohi da jatorriasunaren bila. Horretarako bide tradizioa zaigu. Horra zergatik hurbiltzen den Orixe euskal klasikoengana.

Klasikoak behar bezala ezagutzeko bazen oztoporik. Lehenengoa zen, eta ez nolanhikoa, autore batzuen liburuak ezin zirela eskuratu hain erraz. Orixeren arrangura izango da, hain zuzen, klasikoek gutxi idatzi zutela eta idatzitako apur hori ere ez zela argitaratzen. Hala zioen Zarauzko komentuko Aita Zabalaz *Euzkadi*-n idazten duen 1924ko uztailaren 16ko artikuluan: “Hasta ahora va resultando que casi todos los escritores vascos de alguna nombradía siguen resignados a que no se les edite todo de lo poquísimo que escribieron”. Eskuragaitz zaizkigun autore batzuen izenak ere aurreratzen dizkigu. Adibidez, Aita Zabala frantziskotarraren idazlanak irakurtzeko modurik ez dauka herri xeheak. Axular, Sarako erretoaren *Gero* liburuak bi argitalpen-mota merezi lituzke, bata berea, jatorrizkoa, eta bestea Anibarrok bizkaieraz egindako itzulpena. Euskaltzaleen artean ere batek baino gehiagok ez du ezagutzen Aita Joanategi beneditarraren izena ere, honen idazlanak ahituak daudelako. Argitalpen-egoera honek dakarren ondorioa da –alde guztietatik begiratzen dela ere tamalgarria dena–, euskal irakurleak, nahi izanda ere, ez duela autore klasikoak ezagutzeko bide normalik eta ezezaguna egiten zaiola euskal literatura-ren historia. Irakurle zaletuak, berdin ikertzaileak, nola aztertuko ditu idazlan klasikoak baldin ez badauzka eskura?

Lehen oztopoa, oinarrian teknika izaki, konponetzeko modukoa da, hala ere, baldin baldintza ekonomikoak jartzen badira. Baina bigarrena, nire ustez, arrisku-tsua da, azken hau hizkuntz jarrerari buruzkoa baita. Autore klasikoak gutxi-asko ezagutzen dituzten hainbat

euskaltzaleren artean haienganako aurreiritziak nagusitzen dira eta, horregatik, *a priori* baztertu egiten dituzte. Aranaz geroztik puristen eta populisten artean ematen den ikuspegi kontrajarrien inguruan gauzatzen da une honetako eztabaida nagusia. Hizkuntz irizpide gisa, euskaltzale errotikoen artean bereziki, purismoa indarrean dago eta hauentzat klasikoak, oro har, erdarakaden harrobi dira. Beraz, besterik gabe gaitzestekoak. Euskaltzale purista hauengana zuzentzen da Orixe, klasikoengandik zer harturik badagoela esaten duenean: “Claro que algunos de ellos pudieran haber sido más cuidadosos en velar por la pureza de la lengua; pero ante todo alabemos ese algo o más que algo que hicieron, considerando que a ellos se debe en buena parte la conservación de nuestro idioma. Hay quienes desdeñan su lectura por mal entendido patriotismo cuando éste les debiera llevar a leerles de cabo a cabo, aunque no hallaran en cien de sus páginas más que una frase, un giro, una palabra preciosa. Pero hay algo más que esto en sus páginas. Todavía, aun contando lo más asequible y mejor que en nuestros tiempos se ha escrito, se puede sacar mucho provecho de muchas de ellas” (*Euzkadi*, 1924-05-26). Hurrengo testu honetan, oraingoan espresuki, purismoaren haize-bolara gaudituz eta klasikoak ordu arteko zentsura-egoeratik askatzeko deia egiten du: “Se ha tachado muchas veces a nuestros antepasados de incuria para con su lengua natural. No salgo a la defensa de ellos; pero ¿podrán llamarse con razón diligentes muchos de los que así los censuran sin haberlos leído? Ya van pasando los tiempos en que puristas de buena voluntad, pero de mal entendido celo, cerraban sus ojos, escandalizados de las lamentables ‘erderakadas’ y relegaban esos modestos libros al infierno de su censura. Aunque en cien, doscientas, quinientas páginas de ellos no se hallara sino un vocablo hoy olvidado o poco usado, un giro, una sentencia bien expresada,

merecerían recorrerse todas despacio para salvar esas pocas reliquias del monumento arqueológico por excelencia, que debemos estimar sobre todo otro monumento” (*Euzkadi*, 1924-08-12).

Orixeren bi pasarte horiek oso antzekoak dira edukiaren aldetik, eta bietan euskaltzale puristak irabazteko jarrera kontziliagarria agertzen du, garbiki adieraziz klasikoengan bi alderdi direla bereizi beharrekoak, gaitzesteko eta onartzeko. Nolanahi ere, alea lekatik jalkitzera koan bezala, haien hitz, esaldi eta esaera jatorrak bildu behar dira, erdarakadak aparte utzita.

Horrela, Orixek, autore klasikoen aurkezpena egite-rakoan, helburu jakina darabil buruan. Guztiekin ikuspegi kritikoa erabiliz, sistemaz autore bakoitzaren ezau-garri nagusiak azaltzen ditu, beti ere gehiago nabarmen-duz alderdi positiboak negatiboak baino. Nabari zaio irakurlea klasikoekin harremanetan jartzera bultzatu nahi duela. Bihoaz adibide batzuk esaten ari garen ildotik.

Lapurdikoko eskolan, Axular baitan, batez ere beronen estilo bizi, argi eta zaintsua, esaera zaluak eta kontzeptu-zehaztasuna bilatu behar dira eta ez hainbeste haren hiztegia, erdal hitzez gehiegi kutsatua dagoena (*Euzkadi*, 1924-04-28). Basilio Joanategiren liburuetan, berriz, haren joskeraren aberastasuna, esaeren ugaritasuna eta hita-no-aditzaren maiztasuna gustatuko zaizkio gehienik irakurle puristari (*Euzkadi*, 1924-09-23).

Gipuzkoako eskolan, Kardaberaz ez da eredugarri estiloaren eta hiztegiaren aldetik begiratuta, erdarakada asko dituelako, baina haren luman hitz eta esaldi bitxi asko loratzen da (*Euzkadi*, 1924-08-12). Joan Bautista Agirre Asteasukoak hizkuntza du ederra, estiloa argia eta txukuna, hizkera erraza eta garbia. Dena probetxuzkoa. Mendibururen obra, lexiko garbikoa eta estilo argi eta narokoa, goi- nafarreran oinarritzen da eta, batasun-bidean, euskara unibertsalagoa erabiltzera jotzen du. Lar-

dizabalek estiloa lotu samarra du, erregularregia, baina ikerketa gramatikalak egin nahi dituenak badu non murgildu. Joan Inazio Iztuetak euskara gogor antza du eta, batzuetan, jasanezinezko neologismoak ere erabiltzen ditu. Orokorrean esanda, harenean hitz eta esaera ugari jaso daitezke, batzuk herriak darabiltzanak, beste batzuk Larramendiren hiztegitik eta beste euskalkietatik jasotzen dituenak eta, azkenik, berak bere kabuz moldatutakoak. Zaldibiarraren euskara hizpide dugunez, esan behar dizut Orixek lehen saria –100 pezetakoa– irabazi zuela Euskal-Esnalea elkarteak haren omenez 1929ko abuztuan antolatutako idazti-sariketan, zeinaren izenburuak honela baitzioen: “Iztueta’k erabili zuan euskeraren azterketa. Erriaren aotik artu zituan itzak eta berak asmatu zituanak nola nastuta erabili zituan”.

Bizkaiko eskolari dagokionez, Orixek Joan Antonio Mogel irakurtzeko gomendioa luzatzen du, honen *Peru Abarka*-n irakurleak bizi-bizirik aurkituko baititu herri xeheak bere eguneroko bizitzan –burdinola, errota, ehundegi, ardandegi eta gainerako lantegietan– darabiltzan tresnen deskribapenak, landare- eta hosto-izenak, herri-ohiturak, esaerak eta atsotitzak. Ipuinlari gisa asko eskaintzen duen aita Zabala frantziskotarra arrazoizko purismoaren aitzindari delakoan dago, euskara eder-ederra eta garbi-garbia erabiltzen baitu.

Hauxe da, estapan erakutsita, euskal klasiko horiei buruz pentsatzen duena. Autore horietako bakoitzak du bere berezitasun nagusia eta, oro har, ia dena da horien gan onartzekoa eta erabiltzekoa. Zer hartu eta zer ez, aukera ondo egitean datza gakoa.

Autore klasiko bakoitzak bere ezaugarri bereziak baditu ere, ez dira guztiak maila berean ez aipagarriak eta ez arrazoi berdinegatik aupagarriak. Orixek, segun eta zeri buruz diharduen, irizpide bikoitza erabiltzen du idazle klasikoak juzgatzeko orduan.



Baldin klasikoak beren literatur balioen aldetik begiratzen badira, Orixek baditu hor bere lehentasunak, agian era hierarkizatuan ezar ez daitezkeenak, baina bai, ziur, besteen gainetik maisutasuna aitortzen zaienak. Horiek, ordena kronologikoan ezarrita, Axular (1556-1644), Mendiburu (1708-1782) eta Joanategi (1837-1921) dituzu. Hiruak punta-puntako idazleak. Sarako Erretoreaz, hauxe dio: “Peru Axular (...) duzu aurki euskal-idazlerik bikainena, oraintsudaino”. Oiartzuarrak, berriz, beste honako hau: “Euskal-idazlerik oberena au uste dute zenbaitek eta Cicero euskalduna izena ipini diote. Axular’en ondo-ondoan beintzat tokia merezi du. Euskera garbiagoa du Oyartzuarrak Urdazubiarrak baino; ez ordea ugariegoa”. Aita jesuita honen fama itzalia bezala geratu zen Italiara ohildua izan zenean eta haren idazlanak ia ezezagunak izan dira oraintsu arte. Axular, aldiz, “vir magni nominis in nostra Cantabria” izan zen bere garaian. Aita Joanategiren lanak lehen aldiz irakurri zituenean, erabat txundituta geratu zen Orixe, baieztapen hau egiteraino txundituta: “El P. Yoanátegui encierra la flor y nata de los escritores labortanos, y para quien ésto escribe, sin pretender imponer su juicio, es el autor vasco más completo, aunque entren en la cuenta Axular y Mendiburu” (*Euzkadi*, 1924-09-23). Bakoitza zertan den nagusi ere zehazten du, Axular eta Mendibururen kasuan, bereziki. Baina nire asmoa ez da autore lehenetsi horien eskailera nola ezarri beharko litzatekeen argitzen saiatzea, alferrikako lana baiteritzot horri, baizik eta sinpleki esatea autore klasiko jakin batzuk bereziki estimatu izan zituela bere literatur balioengatik.

## Euskal literaturaren antolaketa

Baina autore klasikoak, ez arestian esan bezala beren baitako literatur balioengatik, baizik eta euskal literatu-

raren garapenean izan duten eraginagatik juzgatzen badira, orduan Orixek beste irizpide bati men egiten dio. Hori nabarmen ageri da *Euskal-Literatura'ren atze edo edesti laburra* saio honetan datorren atalen banaketan. Hor irizpide linguistikoa, geografikoa eta historikoa at utzirik, pertsonala hautatzen du zatiketaren abiapuntutzat. Hala dator adierazia lehen paragrafoaren hasieran bertan: “Eskualdez edo regioneaz, baita euskalkiz ataltzeari ere utzi eginen diot, ezpaitirudit ain egoki. Mendez-mende, gizaldiz-gizaldi zatitzeak ere badu neke, batez ere labur iza-teari ba gatzizkio. Gizonez-gizon markatuko dizut, jaunetik edo buruenik izan direnetara xumeagoak eratzikiz”.

Honela, bada, eskola edo mugimendu jakin baten aitzindari izan direnak lehenesten ditu. Axular, Larramendi eta Sabino Arana dituzu horiek, ondoko testu honetan, tartean esaldi batzuk kenduta, Orixek honela aurkezten dituenak: “Iru guraso orietan badugu bat, lenbizikoa, idazlerik bikainentsuna: Axular... Badugu bigarrena, bera euskal-idazle bikaina izan ezik ere, ezpaitzion lanbide orri irautsi, bere eragitez eta bultzadaz euskeran ildorik edo atzerik barnena utzi zuena: Larramendi beiniki... Geroz irugarren biribilkia Arana-Goiri'rena bedi, bera euskal-idazle edo beintzat idazlari ez izanik ere”. Kontuan har, irakurle, berari hurbilagoak zitzaizkionak aukeran zeuzkala, Kanpion nahiz R. M. Azkue nahiz beste nornahi. Baina Orixek, eskolak eratzeko orduan, euskal idazleak baino lehenago eragileak hautatzen ditu. Azken kasu honetan garbi dago zein irizpide darabilen.

Eskema horren arabera, poesia herritarraz eta Axularren aurreko epealdiaz dakartzan atalak landa utzita, hiru eskola nagusitan banatzen du euskal literaturaren historia. Axulartarren esparruan sartzen ditu Joanes Etxeberri, Larregi, Haraneder, Arbelbide, Joanategi eta Intxauspe prosistak eta Oihenart, Elizanburu, Salaberri, Etxaon, Artxu, Goietxe, Oxobi eta Zalduby poetak. Hauek dira

Lapurdikoko eskola osatzen dutenak. Hegoaldean –Gipuzkoan kokatzen den eskolan, batez ere–, hauek dauzkazu: Mendiburu, Kardaberaz eta Lardizabal jesuitak, aita Añibarro eta Zabala frantziskotarrak, Agirre Asteasuko erretoa, Bartolome karmeldarra, Gregorio Arrue, J. I. Iztueta, Iturriaga eta Azkue, prosisten artean, eta Iparagirre, Bilintx, Artzak, Arrese Beitia, Karmelo Etxegarai eta J. I. Iztueta, poeten artean. Eta XX. mendean, Sabino Aranaren eragin politikoak astinduta, batez ere, Bizkaitik harago hedatzen den euskal kulturgintzaren barruan, lau azpisail egiten dizkigu: a) “Arana’z lekukoak”, eta hemen Txomin Agirre eta Etxeita lekutzen ditu; b) Arana-Goiri bera, eta beronen testamentua jaso zuen Koldo Eleizalde; c) “Arana baino Aranagoak”, eta hemen Orixeri Bilboko egonaldian hainbeste burukomin emango dioten Euzko-Gaztedi elkarteak Arriandiaga, Urrutia, Zabala-Arana, Zinkunegi eta, daude; d) “Arana-kukuak”, antiaranistari handiena R. M. Azkue delarik.

Autore klasikoak ezagutzera ematea zen bere kazetari-lanari ezarri zion lehen xedea. Lortu ote zuen? Badi-rudi baietz, zein neurritan ez dakigun arren. Irakurleriak Axularri egiten dion ongietorriak hala ematen du aditzera, Orixeren pasarte honetan berri on hau baitator: “A raíz de nuestros artículos vimos con satisfacción el deseo que se despertó en algunas personas de leer el *Geroko gero* y sabemos que no están del todo ociosos los pocos ejemplares que existen, cambiándose de mano en mano” (*Euzkadi*, 1925-03-11).

Orixeren propagandak badu meriturik, baldin gogomaten bada puritanismoaren haize-bolada erasotzaileak gogor jotzen zuen garaian egina izan zela. Bera dugu autore klasikoak berreskuratzeko ahaleginetan lehen langile finenetako bat. Merezimendu hori aitortu beharko zaio bederen.

Hasieran esan dut *Euskal-Literatura*’ren atze edo *edesti laburra* saioa Euskal-Esnalea elkarteak 1927an antola-

tutako V. Lehiaketara bidali zuela eta lehen saria irabazi zuela. Egia esateko, ez zuen inorekin lehiatu beharrik izan, zeren “Euskal elertiaren edestiak” izeneko sailera lan hori bakarrik aurkeztu baitzen. Elkartek Emeterio Arrese, Ramon Intzagarai eta Euskal-Esnalea elkarteko zuzendaria izendatu zituen epaimahai-lanetarako eta hauen iritzia, Orixeren lan hori epaitzerakoan, hauxe izan zen: “Lan ederra da; orainarteraño onenbesteko azterpenik ez du iñork egin gure elertian. Utsune gabe-koa ez da ordea. Martzelino Soroa jaunak asi ta beste askok aurreratu duten antzertitzaz itzik ez esatea da nabarmenen agertzen dan utsunea. Elerti-edestia idaztean, aitatu gabe ezin utzi litezke antzerki-gaiak”. Segidan, Orixe sutuko duen erabaki hau dator: “Saria: 350 peseta”. Finkatutakoa baino laurden bat gutxiago.

Kritika horren alderdi positiboak poztuko zuen irabazlea, ordu arte euskal literaturari buruz ez zuela inork horrelako azterketarik egin aitortzen baita. Eta, egia esan, ez da gutxi aitortzea. Egiazki, lehen esan dut, Orixe euskal klasikoen ezagutzan eta berorien aldeko propagandan aitzindari izana dugu. Baina, nire iduriko, Orixe gehien mintzen duena, egiten zaion kritika negatiboa da, eta, honen ondorioz, ezartzen zaion zigor ekonomikoa. Saria 500 pezetakoa zen eta 350 bakarrik ematen dizkiote. Kexatuz, bere haserre guztia azaltzen dio Gregorio Mujikari Bilbotik 1930eko urtarrilaren 28an igorritako gutun honetan: “Gracias por su última carta y su íntimo desahogo. Está usted en su perfecto derecho de exponer sus razones y quejas. Lo hice lo mismo, antes de hacer alusiones públicas, escribiendo al pronto una carta particular al Señor Inzagaray, del Jurado, que no mereció respuesta. Protestaba, no del fallo, sino de la falsedad de su nota y de la proporción mermada. El pelillo que hallaron en mi trabajo anterior, era, que yo no había dicho *ni palabra* del teatro vasco: ‘itzik ere ez’. Esta era la falsedad.

Tanto que el jurado copió las líneas de mi párrafo-introducción a las Pastorales de Zuberoa. Además, (quizá hubiera defecto de redacción vasca) se afirma allá, que M. Soroa fué el fundador del teatro vasco. Yo había querido decir que no hablé de la época esa en la que él le dió algún impulso. Pero según un artículo de Pyarbide que conservo como oro en paño, es tarea muy difícil darse cuenta de lo escrito en esa época, sobre todo para los que no hemos tenido la fortuna de tropezar nunca con la Revista *Euskalerrria*. ¿En estas circunstancias era justo que se me quitase una tercera parte (150 pts) de lo prometido (500)? ¿Significa Marcelino Soroa la tercera parte de la literatura vasca? Supongo además, que insinuar algo sobre el teatro al aire libre y citar a Alzaga y Garitaonaindia, ya es decir 'itzik'. ¿Tanto merecía nuestro mísero teatro?"

Gutun hori dela eta, oraindik argitzeke dauden puntu ilunak ere kausitzen ditut. Hauen artean bat, datazioari dagokiona da. Sariketa hori 1927an egin zen eta gutun hori, berriz, 1930ekoa da. Gaiaren gunea, zalan-tzarik ez da, sariketa horretan hartutako erabakia da. Gutunaren testuingurua zein den jakinda, badirudi bitarte horretan artikuluak eta eskutitzak gurutzatu bide zirela gai horren inguruan. Baina horien berririk ez dugu. Hutsune honetaz ohartarazi nahi zintudan, irakurle, ikerketa osatzear dagoela jakin dezazun.

Bestalde, gutun horretan dioena osoki jaso ahal izateko, dauzkadan baino datu gehiago beharko nituzke, ez baitakit non mintzatzen den Zuberoako pastoralez eta Martzelino Soroaz. Dena den, epaitutako lanera mugatuz, esan behar da, Orixek gutunean dakarren bezala, antzerkiari eskaintzen dizkion lerroak lanaren bukaeran eskaintzen dizkiola: "Urrena teatroa ere on luke gure erriak. Onetan ez ditu atzendu bear egin diren aleginak. Alzaga, Garitaonaindia, t. a. saiatu dire poliki. Atari

zabalean teatroa ere ez legoke oker asmatua; baino laburpentxo onetan ezin idaroki ditizut gogorapen guziek”. Ez dira lerro asko, egia da. “Itzik ez” baino gehiago, hala ere.

Paulo Iztueta Armendariz

## KRITIKA LITERARIOA

### BILDUMA

1. Jon Kortazar: *Diglosia eta euskal literatura*, 2002
2. Iratxe Gutierrez: *Malkoen mintzoa. Arantxa Urretabizkaia eta eleberrigintza*, 2002
3. Orixe: *Euskal literaturaren historia laburra*, 2002